


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Ekainak 7, 110. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




RAFAEL GOMEZ,
Bihotza
Andaluzian
eta
Arrasaten



Eskolako kronikaria


Juanito Leibar eta Gorabeherak

Jabier



ARRASATE
KIROLAK

Kontzeziño 8, Tfnoa: 79 46 12





Zortziko

Euskal dantzen ikuskizuna

ARRASATEN

Ekainak 15 **larunbata**
Kiroldegian **gaueko 10etan**

Sarrerak:

- Aldez aurretik: 400 PTA (Hire, Eresi, Monte eta Kajoi tabernan)
- Takilan: 500 PTA



ARRASATEko UDALA

ARRASATE PRESS ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarría. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Albina Madinabeitia

“**E**ne, Kandida, zer erakutsi behar dautsie neskatilari?...Itsu bat ikusi jonat bibolina jotzen eta...”. Esan omen zion Albinaren amari bere adiskide batek, Albina musikaren sekretuetan barrena hasi berria zela. Harrez geroztik, hamaika egunetako jirabiran ahalegindu da, hamasei urterekin “mirari haur”tzat zeukaten andrea. Gauregun, Albinaren gisako artistei esker, tipo bitxi eta arraroen “gheto”tik askatu ahal izan da musika.

Arrasate Musikalek Albinarentzat omenaldi bat prestatu du; auskalo ze arrazoiengatik, behin eta berriro atzeratzen ari zen eskerroneko ekitaldi honek, aparteko bibolinjole horrekiko zorra kitatu nahi izan du. “*Aprovechamos la oportunidad para brindar una idea. ¿No es hora ya de que Mondragón haga justicia a los reconocidos méritos de ésta su preclara hija para organizar un concierto-homenaje en su honor? El Coliseo Bedia se presta admirablemente a un acto de esta significacion. Sólo falta quien recoja la idea y la lleve a la práctica.*”. Aipu hori ez da atzokoa; 1928ko apirilaren 30ean egiten zuen eskaria “La Voz de Gipuzcoa”ko berriemate arrasatearrak.

Albina Madinabeitiaren bizitza musikari dago lotuta bere aita zenak

lehen notak irakatsi zizkionetik; mandolina lehendabizi, bibolina berehala. Sarasate Saria erdietsi zuen hamasei urterekin; gero, Espainiako Orkestra Nazionalen hogeitamasei urtetan ari izan zen, zortzi hilabete-tako tartetxo batez -Jesus Aranbarriren zuzendaritzapean- Bilboko Orkestran ere maixutasuna erakutsiz. Eta 1978an jubilatutako zenean, bere herrira: “*Hor (Arrasate Musikal) dabilzan haur eta gazteekin laster asko Arrasaten orkestra bat ateratzeko biderik izango dela uste dut. Eta hortxe eman nahi nituzke nire azken irakaspenak*”. Horrela aitortzen zidan Albinak, 1977an izan genuen elkarrizketan. Igarle trebe gertatu zitzaizun.

Iritsi zaio, beraz, Albinari onespeneko ekintza ofiziala; ofiziala diot, izan ere -ene ustez- bere herritik kanpo urterik sasoitsuenak eman zituen emakume langile honi musikazaleok -eta Arrasaten askotxo garaaspaldi eskainia bait genion gurea. Eskerron ixila, beharbada, baina bihotzekoa.

“*A la niña prodigio que no fué profeta en su tierra*” idatzi zuen Flores Kaperotxipi ospetsuak Albinari oparitutako margoan. Baina, historia aztertuko bagenu, zein izan da inoiz maixu bere barrutian?

Urte askotarako!

Josemari Velez de Mendizabal

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

IBARRA Garajea S.A.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

ZANGITU C. B.

PINTURAK ETA PAPERAK
PINTATUAK

Helbide berria: OLARTE 29,

Alfonbra-likidazioa
Otalora 1ean

MUSAKOLA
OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

Zer dauka Marinok?

Oraindik ez dut oso garbi ikusten Marinok gure artean duen erakarmena. Inoiz ez da fenomeno horietakoa izan, Espainiako Vuelta errebotez irabazi zuen, zatar samarra da... eta hala eta guztiz ere, mundu guztia Marino goratzen eta aupatzen. Umeak ere Ma-riii-no! Ma-riii-no! eztarriak urratu beharrean. Bateren batek esplikaziorik balu, gustora irakurriko nuke. Eskerrik asko aldeztu aurretik.


J. BH

Iparaldearekin anaitu

Astero "Herria" Iparaldeko astekaria jasotzen dut etxean. Han irakurri ahal izan dut askotan Azpeitia eta Hazparmeren arteko harremanei buruz.

Badira zenbait urte Azpeitia eta Hazparneko herriek anaitzea erabaki

Joselu



Josune Viteri




Amaia Sanz

Aldaketak

Urtebete 1'erdiz Arrasate Press eta ATBko administrazio eta publizitatean lan egin eta gero, Josune Viterik agur esan digu. Orain EGA ateratzekotan dabil eta ingelesa gogor ikasteko asmotan. Josuneren ordeztu Amaia Sanz etorri zaigu, haren lanari segida emateko asmoz. Eskerrik eta agurrik beroenak Josuneri eta ongi etorrikerik abegikorrena Amaia.

Zure ustez zein izango da Alkate?



Leon Valle
(Jubilatua)

Herri Batasunakoa aterako da, ez? Logikoena da, botu gehien berak atera ditu eta.



Flori Davila
(Gelmako langilea)

Ez dakit, idearik ere ez daukat.



Espe
(Etxekoandrea)

Beno, hori egiten diren negoziazioen arabera dago. Berez, Herri Batasunakoari tokatzen zaio, baina sozialistak eta nazionalistak biltzen badira, haretzek.




Juanjo Iglesias
(Langilea)

Nire ustez, EAJ eta PSOE bilduko dira, eta Alkatea nazionalista izango da. Logikoena da, PSOEk hemen Alkatea ezin duelako mantendu.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

X. Gorosarri eta M. L. Trojaola doktoreak

Mediku espezialistak erreumatologian

Titulu nazional frantseza (Lyon-eko Unibertsitatekoa)

HEZUR, MUSKULU, ZURDA ETA GILTZADURETAKO GAIXOTASUNAK

Zaldibar 1, 1. Tfnoa: 77 00 40 ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

MemesA

79 42 22

**Monte
taberna**

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



7

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Amaia. "Quadrophe-
nia", gaueko 10.30etan.
- Alai. "Bailando con lobos" 6
eta 10.30etan.
- Erakusketa, "kanpo-zorra",
Sebero Altuben.
- Hitzaldia, Chistine Serfaty
marokkiarrarekin, Monterro-
nen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: -egu-
nez: Amezua, Santamaina.
-gauetz: Estella, Bergara.

8

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Bailando con
lobos" 6 eta 10.30etan.
- Rocioko Erromeria,
Al-Andalusekin, Udalan.
- Antzerkia. "Boxtrot", Amaian
gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: -egunez:
Aurora Ruiz, Maala.
-gauetz: Mozos, Bergara.

9

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Bailando con
lobos" 6 eta 10.30etan.
- Kontzertua, Arrasate
Musikalek Albina Madina-
beitiaren omenez, Amaian
eguerdiko 12.30etan.
- Goardiako farmazia: -egunez:
Morales, San Andres.
-gauetz: Mozos, Bergara.

10

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Bailando con
lobos" 6 eta 10.30etan.
- Hitzaldia. "Futbolari-
prestakuntza fisikoa",
Monterronen arratsaldeko
6.30etan.
- Goardiako farmazia: -egunez:
Azkoaga, Ferrerías.
-gauetz: Camacho, Bergara.

11

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Bailando con
lobos" 6 eta 10.30etan
- Goardiako farmazia: -egunez:
Español, Iturrioz.
-gauetz: Puy, Bergara.

12

ASTEAZKENA

• • •

- Goardiako farmazia: -egunez:
Corcuera, Musakola.
-gauetz: Guallar, Bergara.

13

OSTEGUNA

• • •

- Goardiako farmazia: -egunez:
Irizar, Erguin.
-gauetz: Estella, Bergara.

Kirol Agenda

FUTBOLA

• • •

Erreala eta Estatuko konbinatu baten arteko partidua, Atxabalpen asteartean arratsaldeko 6.30etan.

MENDIA

• • •

Besaide Mendizale Elkarteak antolatuturik igandean, Amezketan-Belardi-Uztegi ibilbidea, Irteera goizeko 7etan Garibai geltokitik.

TXIRRINDUA

• • •

Arrasateko Txirrindulari Elkarteak igandean Arrasate-Deskarga-Étxegarate-Zaldondo-Landa ibilbidea egingo dute, guztira 117 kilometro. Irteera goizeko 9etan, tren geltoki zaharraren aurretik.

Liburuak

• **Liburu berriak, Monterrongo liburutegian.**

Literatura:

Auster, Paul. "Trilogia de Nueva York" (nobelak).

Rusdhie, Salman. "Harun y el mar de las historias" (nobela).

Gray, Alisdair. "Lanark, una vida en cuatro libros" (nobela).

Yeats, W. B. "Espectros y otros cuentos fantasticos irlandeses".

Bryce Echenique, A. "Un mundo para Julius" (nobela).

Celaya, Gabriel. "Origenes/Hastapenak" (poesia).

Juaristi, Felipe. "Arinago duk haizea, Absalon" (1991ko kritika saria, narratiba).

Mercader, Luis. "Ramon Mercader, mi hermano" (biografia).

Carpentier, Alejo. "Los pasos contados" (nobela).

Beste batzuk:

Langford, Michael. "La fotografia paso a paso".

"Picos de Europa: rutas turisticas por Asturias, Cantabria y León".

Vega, Inés. "Jim Morrison y The Doors".

Casetti, Francesco. "Cómo analizar un film".

Ikastaroak

• **AEK eta Udal Euskaltegia** Urtero bezala, AEK eta Udal

Euskaltegiak uda parterako ikastaro trinko eta barnetegiak antolatu dituzte, bietan epeak zabalik daudelarik. Informazio zehatza eskuratzeko, AEKn 79 71 12 eta 77 03 69 telefono zenbakietan; Udal Euskaltegian berriz 79 70 77 telefono zenbakian.

• **Solfeoa eta pianoa.**

"Jesus Etxebarria" musika akademian, solfeoa eta pianoa ikasteko matrikula epea zabalik



OMENALDIA

Albina Madinabeitiari eskainitako jaialdia

Gaur egun musika munduan Arrasatek duen maila goreneko musikariari, Albina Madinabeitiari, igandean omenaldia eskainiko zaio. Bibolinjole famatu honi omenaldia eskaintzeko, Arrasate Musikalek kontzertua burutuko du Amaia zineman, eguerdiko 12.30etatik aurrera, eta ondoren bazkaria egingo da. Argi dagoenez, antolatutako ekintzak ez dira gehiegi, baina bai ordea esanahi handikoak.

Izan ere, omenaldi honen bitartez, urte luzestean Estatu orkestra onenetan ibili ondoren eta mundu mailan dauden konposatzaile eta zuzendarien aginduetara egon ondoren, jaioterrira itzuli, bertako orkestran sartu eta dakiena erakusten saiatu den pertsonari, eskerrak eman nahi zaizkiotako. Gainera, kontuan hartu behar da, gaur egun ere, 82 urterekin, Albina eskatzen dionari irakasten saiatzen dela. Beraz, ondo merezitako omenaldia igandekoa. Zorionak Albina!

dago hilaren 19ra arte. Izena emateko gutxienez 6 urte beteta izatea eskatzen da. Informazio gehiago, Iturriotz kaleko 32. zenbakian edo 79 17 67 telefonon.

• **Ahizke-Cim.**

Ingeles, frantses eta aleman ikastaro erdi-trinkoak antolatu dira Ahizke-Cim zentruan. Asteazken bost egun, eskolak goiz edo arratsaldean. Izena emateko epea eskainaren 14ean bukatuko da.

Antzerkia

• **Boxtrot.**

Xabier Marti eta Cristian Atanasiuren konpainiak eskai-

nia, hileroko antzerki saioaren barruan, larunbatean gaueko 10.30etan "Boxtrot" antzerki lana ikusteko aukera izango da.



Erakusketak

• **Euskal jantzi tradizionalak**

Lore Gazteak eta Txikitxu dantza taldeek, Udalaren laguntzaz eta Kultur Bideetan kanpaina aprobetxatuz, euskal jantzi tradizionalen erakusketa antolatu dute. Erakusketa Monterronen jarrita dago, eta hilaren 16ra arte izango da ikusgai. Jantzi zaharrak ikusteko aukeraz gain, garaian garaioko musika-tresna autoktonoak ere ikusi ahal izango dira.

Lehiaketak

• **Arrasate 91.**

AEDk antolatutako, azaroaren 4era arte, Arrasate 91 lehiaketan parte hartu nahi duenak denbora izango du bere lanak aurkezteko. Jakina denez, poesia, bertsoa, ipuina, komikia, edota argazki lanak aurkez daitezke. Oraindik denbora dagoen arren, ez utzi lanok azken ordurako.

Jaiak

• **"Rocio"ko erromeria.**

Orain astebete, andaluziar kultur astea burutu zen moduan, asteburu honetarako Al-Andalus etxeok "Rocio"ko erromeriarren jai ospatu nahi dute. Horretarako, bihar larunbatez, goizeko 9.30etatik aurrera erromeraren prozesioa Udalarantz aterako da. Udalarako igoera "Rocio"ko amabirjinaren irudia bizkarrean daramatela egingo da, zaldi eta zaldunak ere laguntzaile direla.

Behin Udalara iritsi eta gero, egun osorako ekintzak iragartzeko dira: meza, sukaldaritza lehiaketak, dantza talde eta kantarien ekitaldiak, etab.

“ Arrasaten lehiak esangura politiko berezia hartzen du. Txomin Zubizarreta (sic) oraingo HBko alkateak boturik gehien irabazitako hautagaia izatea lortu zuen, 29 botu gehiago Nekane Iglesias PSOeko hautagaiak baino. Partidu biek sei zinegotzi dituzte gorporazioan. Sozialistak Arrasateko Alkatetza eskuratzen lehiatu dira eta posible dute lortzea EAJk laguntza ematen badie, erabateko gehiengoa izango bait lukete. Hala ere, PSE-PSOEk Alkatetza eskuratzea ez dago ondo ikusia EAko herriko batzordean. EAk susmo txarrak dauzka udal aldaketa honen aurrean eta nahiago du partidu abertzale bat izatea Alkatetza eskuratzen duena».

(Alberto Surio kazetariak DV egunkarian)

“ Hiriburu izan barik alderatu ditugun ha- maika herriei buruz hitz eginez gero, ia 60.000 bizilagun dituen Basauriko kirol azpiegitura eskasa nabaritzen da. Beste muturrean, oso ekipamendu, eskuzabalekoa, Hernani, Mondragoe, Bermio eta Laudio. (...) Mondra- goen 1991rako aurrikusitako (kirol) gastuak 106 milioira iristen dira, baina Udalak 57 milioi jarri ditu aurrekon- tuetan. Aurrikusitako gastuaren proportzioak bizilagune- ko 4.100 pezetako inbertsioa ematen du, oso zifra deporti- boa”.

(Eroski aldizkariak 151. zenb.)

“ Dolarra ez den arren gure monetarik esporta- garriena -adierazten du Fagor Taldeak-, 1990ean zehar transakzio hauetarako aurrikusita genuen parekidetasuna dolarreko 117 pezetakoa zen. Batezbesteko parekidetasuna 102 pezeta dolarreko jarri denez, alde honek eragindako errentagarritasun galera 250 milioi PTAtan jar liteke».

(DV egunkarian)

Arrasate ondo presta- tuta dago 93an Euro- pan sartzeko?

93ko Europak erreali- tate berria erakusten du, ekonomia garatuko den gune geografiko zabala- gotan eta mugen desager- penean oinarritutako errealtatea. Politika eta kulturaren gune europarraren bidea hartu dugu, batez ere telekomunikazioari dago- kionez.

Horrekin batera, Europako ekialdeko herrialdeekin aldaketetarako aukera berriak zabaltzen dira, eta nork daki hemendik hamarkada batera Mediterranioko inguru- guneaz ere arduratuko garen. Munduak sinistu ezineko dinamika hartu du.

Modernizazioa egokitzeko ahalmenak arduratzen nau. Munduaren ikuspegi zabala izanik, teknika berrienak eskuratzeko formakuntza derrigorrezkoa da.

Gure inguruan, formakuntza eta ikerketari dagokio- nez goi mailako errealtatea daukagu, baita lehen mailan dauden enpresak. Ahalmen guzti hori, herrien hobekun- tza eta garapenean lagungarri izango diren enpresa eta egitasmoetan bihurtu behar dugu. Ideia eta pertsonen berritzea beharrezkoa da, etorkizunera begiratuko duten proiektuak garatzeko. Europa erronka handia da, baina seguruen, ez mundu mailan proiektzioa duen Arrasate egitea lortu duten pertsonena baino handiagoa.

Azpiegituri dagokienez, formakuntzarako maila go- reneko zentruak sortu eta bailarako komunikabideak hobetzeko lana egin behar dugu, era honetan europar elkarkomunikazio ardatzetik hurbil egon gaitezen.

Jesus Mari Herrasti,
Fagor Taldeko Lehendakaria.




FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE





Etxeak egiteko lur eremua prestatzen hasita zeuden

Larreako proiektua geldituta

Onartutako proiektuan akats ugari azaltzen ziren

Joan den astelehenean, Udaleko Gobernu Batzordeak Larreako babes ofizialeko etxebizitzaren proiektua egin zuen arkitektoarekin, Santiago Aristimuñorekin, sinatutako kontratua ezabatzea erabaki zuen. Udalak hartutako erabakiaren arrazoiak, proiektuan nabaritzen ziren akats larriak lirateke.

Dirudienez, Udalak ez zuen konfiantza handiegirik aurkeztutako proiektuan, eta horregatik enpresa bat kontratatu zuen, proiektua azter zezan. Azterketa horrek azaldu duenez, arki-

tektoak egindako proiektuan zenbait gauza ez dira kontuan hartzen, beraz Udalak kontratua ezabatzeko erabakia hartu zuen. Udalaren ustez, proiektuarekin aurrera egin balitz, etxeak uste zena baino garestiago aterako ziren. Hartutako erabakiaren ondoren argi dago lanak dexente atzeratuko direla.

Gogora daitekeenez, Larreako lur-sailean 110 etxebizitza egiteko asmoa zegoen, eta etxe berria eskuratzeko 498 pertsonen eskariak onartu ziren, eta beste 147 ez.

Urkulun trafikoa arautu

Urkulu inguruetako tokirik bisitatuenerarikoa dela eta, Aretxabaletako Udalak autoen trafikoa eta aparkalekuak arautzeko neurriak hartu ditu.

Aparkatzeko 3 gune jarri dira: lehena, Ikasbide ondoan, 69 aparkalekuarekin; bigarrena, Areantza eta Korueta bitartean, 70-75 aparkalekuarekin; eta hirugarrena, Etxaluze baserritik norabidea debekatzeko duen seinaleraino, 45 auto sartzeko tokiarekin.

Trafikoari dagokionez, norabidea debekatzeko duen seinaletik presaraino daraman bidean ibiltzea zigortu egingo da. Aparkalekuei dagokien neurria zein trafikoari dagokiona bete daitezten, Aretxabaletako Udalak Urkulu zaintzen bi udaltzain jarriko ditu, jende gehien ibiltzen den egun eta orduetan noski.

Neurri berrien helburua ez da isunak jartzea. Ondorioz, bi udaltzainen lana, aparkaleku eta trafikoari dagozkien neurrien berri ematea izango da.



GOROSTI
Jatetxea

Animazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE



OIHALAK

Errekabarren 20,
Tfnoa: 79 80 90 ARETXABAleta

Eslu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

□ Eskoriatzako Irakasle Eskolan Ingeles adar berria

Datorren ikasturtean Eskoriatzako Irakasle Eskolan matrikulatzen direnek aukera berria izango dute, orain dauden ikasketei Ingeles Filologiako adarra gehitu zaie eta.

□ Hezibide Aretxabaletara

Hezibide Elkarte, Deba Garaiko irakaskuntza antolatu eta koordinatze-ko erakundeak utzi egingo du Eskola Politeknikoa Aretxabaletara joateko. Parrokia ondoko Otolara etxean, Lan Kide Aurrezkiaren gaineko solairu batean egingo dute lan Ormaetxeak, Seranok eta Iraetak besteak beste.

□ Otorako Kontseilu Aholkularia

Maiatzaren 7an bildu zen lehenengoz Otorako Kontseilu Aholkulari berria. Bildutakoan artean, Jesus Mari Goienetxe (Fagor), Juan J. Arrieta (LKA), Felix Ormaetxea (Hezibide), Iñazio Lakuntza (EPP), Iñaki Dorronoro (LKS) eta Otoratik J.M. Ormaetxea, J.M. Larrañaga eta J.A. Mendikute.

Erakunde berriaren egitekorik nagusia Otorako irakaskuntza eta heziketa ekintzak Arrasate Kooperatiba Taldearen beharretara lotzea da.

JAIOTZAK

Urkia Albizu, *Itsaso*. Maiatzaren 20an. Larrea Urrestarazu, *Ainhoa*. 25ean. Irazu Garzia, *Markel*. 28an. Martinez Gaya, *Monica*. 30ean. Sanchez Martin, *Maitte*. 30ean. Urrutia Arregi, *Asier*. eta Urrutia Arregi *Ibai* 31n.


EZKONTZAK

Iñaki Perez & Rosa M. Vazquez, maiatzaren 30ean. Zibilez. Amador Rivas & M^a Isabel Martinez, ekainaren 1ean. Zibilez. Francisc J. Calvo & Maria Murillo, 1ean. Zibilez. Pedro Ignacio Blanco & Ma Yolanda Sanchez, 1ean. Elizaz. Jesus M^a Arizmendiarieta & Miren Maitte Narraiza, 1ean. Elizaz.

Txandaka

IZURRITE ISILA

Populazioa zahartuz doan heinean, larriagotu egiten dira adinarekin lotura duten gaisotasunak. Gaisotasun horien artean Osteoporosia da maizen agertzen dena, eta mendealdeko biztanleen artean milioika laguni eragiten dio.



X. Gorosarri (*)

Osteoporosiak, gaisoei minak eta elbarritasun maila ezberdinak eragiteaz gain, gastu ikaragarria dakarkio gizarteari.

Hezurren gutxitzea eta hausteko erraztasun handiagoa dira gaisotasun honen ezaugarri nagusiak. Hausturok bizkarrezur, mokor eta eskumuturretan gertatzen dira batez ere.

Osteoporosiaren sorreran faktore askok eragiten dute, hala nola arraza, hereditaria, tabakoa, alkohol gehiegi edatea, egoneko bizimodua, esneki gutxi hartzea, gaisotasun endokrinologiko zenbait, kortikoideekin eginko tratamendu luzeak etab..., menopausiaren ondoren emakumeengan gertatzen den emakume hormonon gutxitzea da askorekin, garrantzitsuenak.

Gizonek zein emakumeek, 30 urtetik 35 urtera lortzen dute hezurdurarik handiena, eta gero galduaz joaten dira, urtean %0,5 inguru. Emakumearengan, eta menopausiaren ondorengo urteetan %2 eta 5 arterako galera izan daiteke urtean, eta horrela, emakume batek bere hezurdura %45a gal dezake bere bizitzan zehar. Gizonezkoak sexu hormonon galera motelagoa du eta gainera hezurduraren masa handiagoa lortzen du gaztetan eta 80 urtetan, %30a inguru galtzen

du. Arrazoi guzti horien artean, eta gizonezkoarengan ere hutsa ez den arren, Osteoporosia emakumezkoen artean sarriago agertzen da. Emakumeen %40ak Osteoporosiagatik hausturaren bat izango zuen bere bizitzan zehar.

Osteoporosia ez da diagnostikatzen zaila hezurdura zati handia galdu denean eta hezur apurtzeak

daudenean. Orduan erradiografia besterik ez da behar. Maila horretaraino iritsita, gaisotasunaren tratamendua ezin daiteke hezurduraren galera gelditze hutsera mugatu, baldin eta haustura gehiago ekidin nahi bada. Kapitala gehitu beharra dago, eta hori zaila izaten da askotan, tratamendu ezberdinak erabili arren. Azken urteetako aurrerapen teknologikoen, Densitometriak batez ere, haustura gertatu aurretik Osteoporosia antzemateko bidea eman dute eta hezurduraren galera neurtu ere egin daiteke, arina izan arren. Osteoporosia jasateko arriskua duten gizakietan galera zaintzeko tratamendu eraginkorra erabil daiteke eta baita haustura arriskua gutxitu ere, horrek dakarren ezintasunarekin batera.

Gaur egun Densitometro ugari dago euskal hiriburu guztietan martxan. Ikerketa hori bereziki gomendagarria da menopausiadun emakumeetan eta arrisku faktoreak dituen edozeinengan, beharrezko izatera tratamendu egokia jartzeko. Osteoporosia finkatuta duten gaisoengan gaisotasun maila neurtu eta ezarritako tratamendu sendagarrien eragina aztertzeko modua izaten da.

(*) Doktorea

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

BAZAR
TOKI ON

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



Udazkenean has daitezke Amaia eta Ospitale zaharra berrizko lanak

Amaia eta Ospitale zaharra, berri

Legealdiko azken plenoak hartuko du erabakia

Gaur arratsaldeko 7etan burutuko den legealdiko azken plenoan, beste gai batzuen artean, Amaia antzokia eta Ospitale zaharraren etorkizuna erabakiko da.

Amaia antzokia berriztu nahi du Udalak, 130 milioi pezetako aurrekontuarekin. Segurtasun sistema berritu, berogailu sistema hobetu, aire girotua jarri, aldagelak konpondu eta eserleku eta pasiloetan aldaketak egiteko asmoa dago. Jarleku eta pasiloetan egin nahi diren aldaketak burutzen badira, Amaia antzokiak 160 eserleku gutxiago izango ditu. Lan horiek, udazken aldera egiten hasteko asmoa egongo litzateke. Berritze proiektua onartuko balitz, 130 milioi pezeta horietatik Foru Aldundiak 80 ordainduko litzuzke.

Udalak Amaia antzokia berriztu nahi duen era berean, Ospitale zaharrean ere egokitze lanak egin nahi ditu. Plenoan,

zinegotziek Ospitale zaharrean egin nahi diren obrak adjudikatzeko deialdia zabaldu ala ez erabaki beharko dute. Egitasmoa gauzatzeko, 250 milioi pezetako aurrekontua dago, lanak bi fasetan egiteko. Lehen fasean, udazkenean hasita, Arrasate Musikalek erabiliko dituen gelak egokitu eta, Otalora kalera begira dagoen lehen solairua, atikoa, teilatua eta etxaurrea konponduko lirateke. Lehen fasea gauzatzeko, aurrekontu osoaren erdia baino gehiago erabiliko litzateke, 140 milioi pezeta inguru.

Proiektuaren bigarren fasean berriz, aurrekontuaren gainerako 110 milioi pezetarekin, Ospitale zaharraren barne-banaketa berriro antolatzeaz gain, kalistroen berrikuntza lanak burutzea nahiko litzateke.

Badirudi legealdia bukatu aurretik, ondorengoei gauzak ondo lotuta utzi nahi zaizkiela.

Usteak uste

Oraindik zortzi egun geratzen zaizkie gure politikariei datorren 15ean nori emango dioten alkate izateko botua erabakitzeko. Egingo nuke Mondragoekoek oraindik ez dutela erabakirik hartu eta seguruenik ezta hartuko ere.

Hauteskundeetako emaitzak nolakoak izan diren ikusita, argi dago udaletxeetan hartuko diren jarrerak zerikusi handia izango dutela Euskal Herri mailan gertatzen denarekin. Donostiako udaletxean eta Diputazioan hirukoitza jartzen dela, orduan Arrasaten Loitik boletu gehien eta sozialisten teilatuan erabakitzea HBko alkatea nahi duten ala ez. Donostian jeltzaleak sozialistekin batera doazela, ba Nekanek aukera gehien, jeltzaleen botuekin.

Geroz eta zailagoa ikusten dena Xabierren bigarren alkatealdia da, besteak beste Jauregik esan duenez, alkateztak HBri kenzeko erabakiak ez dituztelako baldintzatuko beste maila batean lor ditzaketen akordioetara. Hau da, sozialistentzat HBri udal agintea kenzekak lehentasuna dauka.

Galdera: nortzuen inguruan gauza daiteke, orduan, erabateko gehiengoa? Erantzuna: maiatzaren 15eko eguerdian. Galdera: eta zer Mondragoeko hurrengo alkatea alkatesa balitz? Erantzuna: hala bada, hala biz, eta ez bada...

JOXE ARANZABAL

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12




LEKIN

Ileapaindegi mistoa

Erguin 15, etxebehea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



1990eko ekainaren 13an Larragain etxea bota zutenerako lurra kentzeko lanak nahiko aurreratuta zeuden. Hondeatzeko makina batek Larragaineko hormak bixkitzen zituen bitartean, beste batek lanean segitzen zuen beheko aldean kamioia lurrez betetzen. 110 etxebizitza egin behar zituen Irgalak hor eta Udalak, Tecsa enpresaren bidez, Ferixalekuko pilotalekua.



Aldameneko argazkia hartu zela astebete pasatu ez zela, Jose Luis Iñarra pasealekuan lehen brintzak agertu ziren. Ondorioz, Udalak obrak geldierazi zituen, egindako hutsunea be-tearazi eta bidea itxi. Antza denez, terrenoaren analisi geoteknikoa txarto eginda zegoen. Maldaren azpian ez zegoen harkaitz sendorik, deskonposatua baizik. Maldaren euskarri zen lurra kentzea eta makinaren burrundarak mugierazi bide zuten lurra.



Altamirako auzotarrek itxita izan dute urtebetez kalera jais-teko zeukaten biderik erosoena. Udalak eskilara berriak egin zituen ahal bezain aguro, baina gaztetxoek nahiago dute lehengo bide itxia erabili. Zaharrentzat, ostera, gehiegi omen dira eskilarak. «Bahituta naukate, hortik ezin naiz jaitsi», zioen 81 urteko Leticia Bibolinik. Kalera etortzeko taxia hartzen omen dute bera bezalako batzuk.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA Tfnoa: 79 91 84

VE ECUADOR


Kontzezlifo 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

URONDO
elektrizitatea




- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Orain urtebete agertu ziren lehen pitzadurak Azatza etxeetan. Hala ere, auzotarrek diotenez, brintzarik gehienak eta lur mugimenturik handienak 1991ko urtarriletik aurrera eman dira, beheko hormaren tinkatze lanak hasi zirenetik. Etxeak sostengatzen dituzten zenbait zutabe inportante okertzen eta pitzatzen hasi dira, eta zenbait ur-tuberia lehertu. Beldur dira ea gas-tuberiekin ez ote den beste horrenbeste gertatuko.

Maiatzaren 28an, Jesus Alfonso Poncela Bergarako epaileak obra guztiak -Irgalaren etxebizitak, hormaren tinkatze lanak eta frontoiarenak- geldierazteko sententzia eman zuen. Salbuespen bakarra, 8-10 etxebizitzatako modulua.

Maiatzaren 31n Azatzako etxeetakoe karnioikada bat lur ateratzen ikusi zuten goizeko 8.00etan. Zenbait auzotar obren atarira joan eta, ertzainen aurrean, Irgalako gerenteari epaileak emandako aginduak gogoraraziaz bat, salaketa ipini zuten auzitegian.



la urtebetez aitorpen publikorik egin barik egon eta gero, Azatza etxeetako auzotarrek modu desberdinetan azaldu dute euren haserre azken asteetan. Pankartak jartzeaz batera, gutun ireki oso gogorra atera zuten Udala eta Irgala etxegilearen kontra. Biak auzitegiatar eraman zituzten. Euren etxeen segurtasuna eta jasandako kalteen ordaina eskatzen dute.



Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR

LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ

Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)




• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.

• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Irlotara.


Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.



• ANSCO argazki makina bat.



• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju bat.

IRABAZLEAK

Argazki makina:
IDURRE
SALGOI-GOIBURU
 Telefonoa:
ANA
URGARTEBURU
 Erlojua:
FERNANDO
AZURMENDI
 Afaria:
J. RAMON
URIBARREN

Zotz




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01
 ARRASATE

Erikite

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
 ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 25
 ARRASATE

Motz

LEHIAKETA



GALDERA


Mondragoeko
zein musikariri
egin zaio
omenaldia aste
honetan?

Izena:

Abizena:

Telefonoa:

• Bidali erantzuna eta zure datuak
Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA
2 lagunentzako bidaiia
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.
(F.F)



KAT@IDE
ARRASATE

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE



Baskotour
BIDAIAK

Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22
ARRASATE



MECA
tailerrak

Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 1 2
ARRASATE




▲
Berrogeitamar urte igaro dira Loli Sotillo maistra donostiarrak bere ikasle mondragoetarrak txangoan Donostiara eraman zituenetik (Ikus Fotozahar). Joan den apirilaren 28an, Lolik 75 urte bete zituela eta, haren zenbait ikasle ohi Donostiara joan ziren beren antzinako maistrari omenaldia egitera. Eguna elkarrekin pasatu zuten eta, nola ez, Donostiako kaian argazkia atera. Goian ezkerretik, **Maria Angeles Usatorre, Rosario Mondragon, Pili Eraña, Lolita Sotillo, Maria Lourdes Bolinaga** eta **Arantxa Aiestaran**. Belauniko, **Rosario Ugalde, Nati Carmona, Arantxa Urrejola** eta **Lolita Uranga**.

Fernando Okina
eta **Anabel Mondragon** gazte arrasatearrak
Azatzako elizan ezkondu
ziren, martxoaren 16an.

Zorionak! ▶



Epelde



▲
Joserra Garziaren bisita izan genuen. Uutzi egingo du laster *Hitzetik hortzera*. Urtebeteko eszedentzia hartzekotan da Joserra, baina ez egonean egotekoe. Etor argitaletxeak Bertsolaritzaren historiari argitaratuko dituen hamar aleak koordinatzen dihar du. Nobela bat ere badarabil buruan.



IRAKASLE ESKOLA

E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Irakasle Eskola honek zera jakin arazi du:


1991-92 ikasturterako aurreinskripzioa-epea zabalik dagoela.

Espezialitateak:

- **ZIENTZIAK**
- **HAUR-ESKOLA**
- **EUSKAL FILOLOGIA**
- **INGELES FILOLOGIA**

Informazioa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40. Ordutegia: 9.00-12.00 eta 15.00-18.00

Izen
PROPIOAK



Hasieran txiste txapelketa izan behar zena, azkenean txiste jaialdi bihurtu zen.

AEKk antolatzen duen lehiaketa honen hirugarren edizioak ez zuen orain artekoen arrakastarik lortu. Amaian berrogeiren bat ikusle eta lau txiste kontatzaile bildu ziren. Egoera ikusita, txiste kontatzaileek, **Jon Iñaki Izarzelaiak, Maite Aristegi, Xabier Garitano eta Asier Agirrebeñak**, txapelketa egin beharrean jaialdia egitea erabaki zuten. Azkenik ikuskizuna ederra izan zen.

Txisteez gain, **Mikel Gorosabelek** kantuan

egin zuen, eta jaialdiaren azken aldera ikusleek Leintz bertsoes-

kolakoek egindako bertsoak kantatu zituzten.

● **Javier Marcos**, 26, aretxabaletarra da TU-Lankide kooperatiben aldizkariko zuzendari berria, karguan Jose M. Larrañaga ordezkaturik. Leioan Kazetaritza ikasia eta AZK publizitate-agentzian lan egin izana, urtebete t' erdi darama Otaroran lanean.

● **Albina Madinabeltza**, 82, bibolin-jole arrasatearra. Estatuko Orkestra filarmo-niko guztien bakarlarria izan da, errezitaldi ugari emanda. Espainiako Orkestra Nazionaleko partaidea urte luzetan. 1979an jubilatu eta Arrasatera itzuli zen, Arrasate Musikalen bibolina jo eta gazteei erakusteko. Larunbaten omenaldia jasoko du.

● **Julio Gorroñogotia**, 65, irakasle mondragoetarra ekainaren hasieran jubilatu berri da. Injineru teknikoa -Zaragozara examinatzera joan zirenen lehen promoziokoa-, 31 urte egin ditu Eskola Politeknikoan. Maestria, Peritaje eta Iraunkorreko zuzendari ohia. Abuztura arte segituko du eskolak ematen.



◀ San Frantzisko Xabier Ikastolako hiru taldek, San Antolin ikastetxean dabiltzanak, Eusko Jaurlaritzaren Barne Saileko Trafiko Sailak antolatutako eskolen arteko **Bide Heziketako lehiaketa irabazi** zuten. Bizikleta, erloju eta kalkulagailuak izan ziren irabazleentzako opariak.

ARRIARAN

Ekainean zehar 5.000 PTAtik gorako erosketa egiteagatik, bisera polit bat erregalatuko dizugu

Otalora 29, Tfnoa: 77 05 61 ARRASATE


Eskolako kronikaria

Bere egilea jubilatzeke zorian dagoenean, Gorabeherak Eskola Politeknikoko orri informatiboak 500. zenbakia bete berri du. Bi edo hiru astez behin, Juanito Leibarrek 325 kopia ateratzen ditu eta banatu. Euskadiko Lehendakariak ere jasotzen du.

Juanito Leibar gesalibarra 1957an sartu zen Eskola Politeknikoan, Filosofia eta Letrak ikasi eta gero. Urtebetera Eskolako idazkari egin zuten, gaur arte. Idazkari eta irakasle izateaz gain, 24 urte eman ditu Kontseilu Errektorean. Guzti horretaz gain, bera izan zen S. Frantzisko Xabier ikastolako lehen zuzendaria.

Orain hamasei bat urte Eskola izugarri ari zela hazten konturatu zen, "eta irakasleen artean ez zegoela harreman handirik. Horregatik erabaki nuen Gorabeherak orri informatiboa egitea". Gorabeherak berri laburrez dago idatzita. "Albiste interesgarriak izan behar dira, malizia apur batekin idatziak, baina inor mindu barik".

Hamasei urte hauetan Eskolako kronika bihurtu da. Orri soila, alde bietatik makinaz idatzita, ertz guztiak ondo aprobetxatuta eta beti gaiarekin lotutako marrazkitoren batekin.



Malizia apur batekin idatzitako berriak

Denetik idazten du Juanitok, ia beti Eskolari lotutako berriak: matrikulazio-

ak, miaketa medikoak, lora-tegia hornitzen duten ehundaka landare eta arbolen

egoeraz, irakasleen urtebetetze, ezkontza eta heriotzei buruz, ikasle zein ikasle ohien balentriez, kooperatiben gorabeheraz, den-dena mikro-mundu aberatsa osatzen duen Eskola Politeknikoari buruz.

Juanitok berak egiten du banaketa Eskolako irakasle guztien artean. Karteleretan pegatu eta postaz bidali. Azken hauen artean, duen zerrendari begiratu gero, Errenteria, Elorrio, Leioa, Madril, Donostia, Eibar, Usurbil, Egea de los Caballeros, Zumaia eta Gasteiz agertzen dira, besteak beste. Ajuria Eneako apopiloak ere jasotzen du Gorabeherak.

Badu etorkizunik?

Ez dago dudarik Gorabeherak orriak sekulako arrakasta izan duela. Oraintsu seme-alabak irten zaizkio. Goier-en *Kontakaitilu* eta Fagorren orri informatiboak hor daude. Baina orain arteko *Gorabeherak* ez dago ulertzetik Juanito Leibar barik.

Juanito uda honetan jubilatuko da, abuztuaren 31n, Julio Gorroñogoitia eta Pako Alvarezekin batera. Jarrainenik izango duen galdetzen diogunean, "ez da erraza", diosku, "interesgarria bai, baina ea nork hartzen duen. Zaila da, ze denbora guztian antena jarrita eduki behar duzu, erne, zer idatziko, nola... Egiten bada, hobea izanda ere, desberdina izango da".

Juanito kazetari


1 960an sortu zenetik, Juanitok hogeitalau urtez bete zuen TU-Lankide aldizkariaren zuzendaritzaren lehen aroa. Ostean beste lau zuzendari etorriko ziren.

"On Jose Mariak sortu

zuen eta bera izan zen jaun eta jabe; ni zuzendaria. Oso simplea zen. Irakurri eta paperontzira botatzeko modukoa. Lehen hamahiruak multikopistan atera genituen. Poliki-poliki aldizkari itxura hartuz joan da. Hile-ro atera dugu, kale egin bari-rik”.

Juanito historialaria

Bereziki Mondragoe inguruko historia, geografia, ohiturak eta, aztertzea gustatzen zaio. “Lehen liburua Jose Letonarekin batera idatzi nuen, Aurrezki Kutxa Muzizipalak eratu-tako lehiaketa baterako. Mondragoeko historiaz idatzi genuen. Bigarrena, bi to-motan, Leintz bailarari buruz. Hirugarrena Kurtze-barriri buruz, hango guru-tzeak 50urte bete zituenean”.



Eskolako banaketa Juanitok berak egiten du.

enkuadernatuta Finlandia 89, eta Andalusia 83, beste askoren artean.

Idazteko grina betidanik izan du. Ahal duenean, literatur sariketetan hartzen du parte. Behin baino gehiagotan saria irabazita itzuli izan da etxera.


Jubilatutakoan

Zer egingo du jubilatuta eta gero? “Deskantsatu eta ordutegia eta egutegia apurtu. Erlojuaren menpean bizitzea esklabizatuta bizitzea da”. Zer edo zer idatziko du, baina oraingo ez dauka argi zer. Arrasateri buruz karpetatan pilotuta daukan dokumentazio mordua antolatu nahi du, hori bai.

Proposamena Udalari

Geroz eta gehiago dira Mondragoeri buruzko lanak edo azterketak egitera datozenak, ikasleak zein ikertzaileak. Material guztia sakabanatuta dagoenez, ez dakite askotan nora joan eta, sarritan, Juanito Leibarrengana jotzen dute laguntza eske. Hori ikusita, Juanitok badu proposamen bat Mondragoeko Udalarentzat.

“Arrasaten edo Arrasateri buruz edo arrasatearrek idatzitako lan guztiak Montierren edo beste nonbaiteko gela batean jaritzea. Hor Arrasate Press, TU-Lankide, Sirimiri, enpresa eta ikastetxeetako memoriak eta bestelako liburuak sartuko nituzke, hasi Garibairen lanekin eta azkeneraino. Orain guzti hori sakabanatuta dago. Zenbat eta beranduago egin, zailagoa izango da. Erronka polita izan daiteke aukeratu berri den Udalarentzat”.



Bidai kronikalaria ere bada. Esteban Illarramendik antolatzen ditu Eskolako bidaiak eta Juanitok bidaiaria horien oroitzenak idazten ditu. Hor dauzka txukun asko

AUTO
ESKOLA
ARRASATE
7etatik 8etara klase teorikoak
Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

HITZALDIA

Testu eta musikaren arteko erlazioa herri-kantuetan


- Herriak musika asmatzeko bideak
- Testu moldaketa, doinu moldaketa, bariozioa...

Hizlaria: **Jose Ignazio Lopez de Luzuriaga.**
Donostiako Musika Kontserbategiko katedraduna

Eguna: **ekainak 13, osteguna.**

Tokia: **Monterron Kultur etxean**


Ordua: **Arratsaldeko 7etan**



Salteroiu

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur
egun eskura daukazun leiho miresga-
rriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnok: 79-24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Literatur Press: Gure irakurleentzako aurkezpen modura, nola laburtuko zenuke zure orain arteko literatur iharduna?

Joxe Austin Arrieta: 1977an hasiko nintzen, Ustela Sailean pare bat ipuin argitaratuz. 1979an bukatur nuen lehendabiziko nobela; handik bizpalau urtera, lehen poema liburua, eta gero iaz arte, bi urtez behin edo zerbait atera dut. Hiru alor ikutu izan ditut orain artean: poesia (hiru poema-liburu), nobela (bi) eta itzulpegintza. Tarte-ka, artikuluak eta literatur irakasle ere ari izan nintzen pare bat urtez, Deustoko Unibertsitatean.

L.P.: Jenero guzti horien artean, non kokatzen duzu zeure burua?

J.A. Arrieta: Ez dakit euskal irakurleagoak zertzat hartuko nauen batipat, narratzailetzat, poetatzat... Eta niri ere zaila zait nire burua bata edo bestea den definitzea. Kuantitatiboki, lanik luzeenak eta denbora gehien eraman didatenak narratibazkoak izan dira, eman diezaiegun beraz lehentasuna. Barrutik, niri poesia izugarri gustatzen zait; jeneroen artean depuratuena edo iruditzen zait, norberaren subjektibotasunaren ikuturik gehienak adierazteko ahalmenik handiena duena. Baina uste dut nire aportazioa handiagoa izan dela, bere apaltasunean noski, narratiban.

L.P.: Nolakoa da zure jardun politikoa eta literarioaren arteko harremana?

L.A. Arrieta: Harre-

J. A. Arrieta



“Literatura eta politika oso lanbide ezberdinak dira”

man bakarra pertsona berak eginga izatea da, baina berez, bere horretan, oso jardun diferenteak dira. Dударik ez da, baso komunikanteen antzerako zerbait gertatzen da, bizitzaren beste edozein dimentsiotan bezala (langile ere banaiz, edota senarra, eta aita...). Politikaz ere ditudan sentimentu edo ideiak transmititu egiten dira, ez dut konpartimentu estankorik egiten, baina betidanik izan dut oso garbi lanbide diferenteak direla. Ez bata bestearen zerbitzuko eta alderantziz.

L.P.: Mintzoen mintzak poema-liburua eta Eulien ugazaba itzulpena dira kaleratu dituzun azken liburuak. Zein proiektutan zaude orain sartuta?

J.A. Arrieta: Ez dakit noiz hartu ahal izango dudan literatur lan batek eskatzen duen patxara eta denbora. Badut asmoa, baina ez dakit noiz. Nire zirkulu partikularrak ere izaten ditut, oraingoan uste dut narratiba aldera joko dudala berriro. Behar bada, ipuin edo narrazio laburren bildumatxo bat



Joxe Agustin Arrieta

egingo nuke.

L.P.: Azken bolada honetan zenbait aldaketa ari da somatzen euskal munduan: Egunkariaren sorrera, zenbait aldizkariaren sendoketa...

J.A. Arrieta: Edozein gizarte edo herriren kultur jardunerako, beharrezkoa da azpiegitura bat. Zentzu horretan, pozgarriak besterik ezin daitezke izan orain hantemenka sortzen ari diren euskarriak: Egunkaria, zue- na bezelako herri-aldizkariak... Plataforma horiek behar-beharrezkoak dira ideiak zorrozteko eta eritzi trukaketarako.

Baina, intuizio bezala, esango nuke kontuz ibili behar dugula medio horietan ez itotzen: behar den perspektiba ez galtzen. Batzuetan gerta daiteke denok ur gaineko bitsetan indarrak galtzea, unean-uneko instantzietan erantzuten eta, behar bada, polemika antzu xamarrek bideratzen; nik errespetu handia diot artikulismoari, eta oso beharrezkoa da, baina zoritxarrez, behar bada, denok bihurtzen ari gara gero eta gehiago «periodiku-gizaki», «liburu-gizaki» baino. Eta kontraesana litzateke literatura, liburuen berri tribuna periodistikoaren bitartez soilik izatea. Beste erritmo patxadatsuago bateko ekintzak ere suspertu behar dira eskoletan, UEUn, etabar, gure literatura aztertzeke beta izan dezagun. Dagoeneko euskal literaturaren produkzioa, bere apaltasunean ere, nahiko ugaria da, eta hor ari dira kritikoak eta irakurleak, aukeratu beharrean.

Literatur Press: Zuk literaturarekin harreman bikoitza duzu: kritiko eta irakaslea zara, baina baita sortzaile ere. Egi-guzu zure jardun horien laburpena.

Iñaki Aldekoa: Kritikan, gehien bat eskatutako lanak izan dira egin ditudanak: UEU-n eta EHUko Udako ikastaroetan emandako hitzaldiak, gero Jakinen, Literatur Gazeta-n, Hegats-en, Uztaro-n... argitaratu izan direnak. Laster kalera-tuko den Euskal Poesiaren antologiarako hitzaurrea ere idatzi dut. Sormen lanari dagokionez, ipuingintzan ari izan naiz. «Ignacio Aldecoa» saria irabazi zuen ipuina eta «Taberna zulokoak» liburukoa ditut argitaratuta.

L. Press: Literatur jeneroen artean, zertan ikusten duzu erosoan zeure burua?

I. Aldekoa: Neure burua ondoen narrazio munduan ikusten dut. Poesia gustatu bai, asko, irakurtzeko... eta kritikatzeko (barre egiten du).

L. Press: Nola ikusten duzu euskal literatur-kritika? Ba al dago horrelakorik?

I. Aldekoa: Ez dakit gehiegi inporta duen nola dagoen kritika. Nuere burua ez daukat kritikotzat. Uste dut kritika literaturaren inguruan egindako jarduna dela, eta jardun horretan, neuk ere berba egin nahi dut. Infra-estruktura nahiko handia da: unibertsitateak, sariak... eta guzti horri aurre egiteko jende gutxi dagoenez, batzuetan xelebrekeriak gertatzen dira.

Bestalde, uste dut literaturak gizona eta gizartearen gainean egindako erreflexio serioa behar duela izan, eta kritikak erreflexio horren gaineko bigarren erreflexioa.

Iñaki Aldekoa




“Oso idazle gutxi dago erreflexioa eta ofizioa batzen dituenik”

Erreseinak eta beharrezkoak dira, jakina, baina egunkari eta aldizkarietako erreseina horietan nahiko susmagarria da sekula ez aurkitzea kontrako erreseinarik. Badakit

euskal literaturaren panorama?

I. Aldekoa: Egia esan, kuantitaboki asko hedatu da produkzioa. Agian gehiegi idazten dela esatera ere au-



Iñaki Aldekoa

positiboak behar dugula izan eta batez ere hasi berriak animatu, etabar. Kritiko baten lana ere bada aukeratzeko eta esatea: honek balio du, honek ez horrenbeste; aukeratu egin behar dela: dena ez dela ona. Saiatuz beti ere, bere eritzi hori azaltzen eta benetako analisisan oinarritzen.

L. Press: Eta bukatzeko, nola ikusten duzu

sartuko nintzateke, zentzu honetan: idazten denaz konzientegi izan barik. Autore gutxi ikusten da bere lan eta diskurtso literarioa erreflexio serio batean oinarritzen duena. Gero badira, jakina, Atxaga, Sarrionandia, Lertxundi eta horrelakoen kasuak, baina oso gutxi dira. Oso idazle gutxi dago erreflexioa eta ofizioa batzen dituztenak.



Kazetarako kronikatxoak idatzi beharrez, hemen nago, egunero bezala, Jazz-barrean. Aurrean daukat orkestrina, betiko jazz doinuak entsalatzeko; aurrean kamareroak eguneroko klientelaren gustuak igartzeko. Aspaldidanik ezagutzen dudako zokoaren traza aldatu ez bada ere, eskutitza irakurri eta gero, dantzan dabilatzat Odilen heriotza eta Philippe, dantzan jazz doinuaz girotutako harreman deseginak. Halabaina, eskutitzentzat nostalgia eta geroa batu nahi lituzkeen ahalegin mortua ez dago etorkizunik halako bar batean, zeren norbere gogara egoteko denborarik ez bait dizu emango, algaraka zerbeza hartzera gonbidatuko zaituen lagunak. Lagun honek bere trajeriak kontatu eta gero beste norbaiti zuzenduko zaito.

Iñaki Aldekoa



Iñaki Aldekoa

(Oñati, 1962)

Argitaratutako lanak:

• **Begirada galduen nostalgia.** Ipuina (1989.eko Ignacio Aldecoa saria)

• **Argonautak.** Ipuina (Taberna zulokoak liburuan)

Literatur Press: Idazlegai modura ekarri nahi izan zaitugu orriotara. Nola hasten da idazlea egiten, nola hasi zinen literatur kontuetan?

Itziar Bartolome: Ba, hasi nintzen «Irati» tabernak antolatutako literatur lehiaketa batean, «Presoak eta askatasuna» eta horrelako gaiekin, hamaika-hamabi urte nituela. Ipuin batekin irabazi nuen, eta hurrengo urtean ere bai; hiru orrialdeko ipuintxoak ziren. Gero Ondarrun aurkeztu nintzen, hamalau-hamabost urterekin, eta hangoa, sariaz gain, argitaratu ere egin zidaten. Liburu azokaren inguruan antolatutako batean ere, bigarren saria atera nuen. Eta gero poesiarekin hasi eta iazko AEDko poesia saria irabazi nuen (laster argitaratuko da). Arrasate Press-eko «Zeuk sortua» sailean ere poema eta ipuintxoak kale-ratu izan ditut.

L. Press: Eta nondik nora hasi zinen idazten? Nondik datorkizu zale-tasun hori?

I. Bartolome: Aitari, adibidez, asko gustatzen zaio irakurtzea; eta amak, berriz, berba egiteko modu berezia du, gauzak zuzenean esan gabe metaforetara jotzen du oso erre. Horrek ere eraginik izango zuen, ez dakit.

L. Press: Eta zein da zuretzat idaztearen helburua: zeure barrenean arakatzea, besteei zer-bait erakustea...?

I. Bartolome: Lehenengo, niretzat idazten dut. Denbora luzean idatzi barik banago, idazteko gogo izugarria sentitzen dut. Bartzuetan moldatu egiten ditut barruko horren adierazpenak, besteek hobeto uler ditzaten, baina barrutik sortzen da.

Itziar Bartolome



“Denok daukagu barruan duguna kanporatzeko beharra”

L. Press: Galdera tontoa: zure adineko jendearen artean ezberdina sentitzen zara, idatzi egiten duzulako?

I. Bartolome: Diferentia ez naiz sentitzen, baina esaten didatenean: «baina, nola idatzi dezakezu hori; niri ez zait holakorik okurritzen, roilo hori ez da niretzat», horrelako gauzak; orduan ikusten dut: ez daukaue ezer ere barrutik pentsatzeko?, idaztea ez bada, barruko zera hori marraztea edo. Uste dut denok daukagula horrelako beharren bat,

era ezberdinetan kanporatzen duguna. Oso pasibo ikusten dut batzutan nire edadeko jendea, bizi izan bakarrik, bizi.


L. Press: Nola ikusten duzu euskal literaturaren mundua idazle hasi berri batentzat?

I. Bartolome: Norberaren lana baloratu egin behar da. Zuk idazten duzunak zuretzat bakarrik balio badu, zaila izango da argitaratzea. Ez dut uste orain aukerarik izango nukeenik ezer argitaratzeko. Inoiz ez dut pentsatu nire libururen

bat kalean egongo denik. Gustatuko litzaidake, baina oraingoz ez dut sekula pentsatu posible denik.

L. Press: Orain hamazazpi urte dituzu; erabakiak hartzeko garaia, ikasketak... Nola ikusten dituzu ikasketak eta literatura zure etorkizunean? Eta zergatik aukeratu duzu Injinerutza, literaturarekin hain zerikusi txikia duen karrera?

I. Bartolome: Ikastea betidanik gustatu izan zait. Agian beste karreraren bat egingo nuke, Psikologia edo, baina ez dut gero lanik aurkitzeko aukera handirik ikusten. Orduan, ba hori, Injinerutzan ikusten diren ikasgaiak gustatzen zaizkit. Idazteko benetako gogo baldin badut, ez dut uste literaturatik apartatuko nauenik. Injineri baten lana, fabrika batean eta, ez dut oso polita ikusten, baina... Ez dut uste literatura utziko dudarik. Ikusiko dugu.



Itziar Bartolome

◆◆◆◆

Oihukaldazu, orain, zenbat aho dituen otsoak, zenbat zatitan banatzen den mundua. Oihukaldazu ea egia den gezurra ez dena eta gezurra dena benetan faltsua den. Oihukaldazu non dagoen itsasoaren muga... eta ni, isildu egingo naiz.


Itziar Bartolome



Seguruetan aintzindari.

Egunetik egunera guztion beharrei egokitzen ahalegintzen garelako pertsona, familia, industria bakoitzaren neurria egunerakotutako poliza gama, errazak eta ekonomia guztietara moldatzen direnak ditugulako.

Poliza aintzindariak.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK



Rafael Gomez

Bihotza, Andaluzian edo Arrasaten?

Rafael Gomez orain 39 urte Montillan jaio zen. Hamalau urte zituenean, beste askok egin zuten moduan, Arrasatera etorri zen. Duela hamabost hilabetetik, Al-Andalus elkartearen eratu zenetik, Arrasaten dauden 598 andaluziarren lehendakaria da.

— Zergatik etorri zinen Euskadira?


— Neure buruari ere askotan galdetu izan diot. Ez dakit, behin hemen bizi zen bat, Montillara joan zen oporrrak igarotzera. Honi buruz hitz egin zidan, han baino askoz ere gehiago irabaziko nuela esanez, eta etortzea erabaki nuen. Iritsi nintzen eguna larunbata zen, astelehenerako lanean nengoen eta oraindik ere lantegi berean nabil. Gero ia familia osoa etorri zen, eta gaur egun niretzat oso zaila izango litza-teke hemendik alde egitea.

— Bizimodu berrira egokitzea nekeza izan zen?

— Batzuei kostatzen zaie, baina nire kasuan ez nuen arazorik izan. Behar-bada oztoporik handiena hizkun-tzarena izan da. Euskara ikasteko, egunero bi ordu denbora luzez, baina ez dut ikasi. Egunero bi ordu eman, eta hortik kanpo giro ez-euskaldunean bizita, oso zaila da behar bezala ikastea. Nire semei ere gauza bera gertatzen zaie, eskolan euskaraz egiten dute eta gainera ondo dakite, baina etxeko giroa ez da euskalduna, beraz ez dira euskaraz bizi. Hurrengo belanaldian baliteke arazo hori konpontzea.

— Etorri zinenean zerk harritu zintuen gehien?

— Orografiak esango nuke. Montillako edozein



bazterretatik atera eta hamar kilometrorra dauden herriak ikusten dira. Hemen, berriz, Aretxabaleta hiru kilometrorra dago eta Arrasatetik ez da ikusten. Hori niretzat gogorra izan zen. Ohituren aldaketa ez nuen gehiegi nabaritu, handik alde egin nuenean 14 urte nituelako eta adin horrekin andaluziarren ohiturak ere ez nituelako ezagutzen.

Gustatu ez zitzaidan zerbait gogoratzeko oroimenean asko sakondu beharko nuke, akaso eguraldia.

— Hona etorri, bertan bizimodua finkatu eta Al-Anda-

lus sortarazten duzue, zergatik?

— Montillara oporretara joan eta Arrasaten bizi ginen asko biltzen ginen. Han elkar ikusten genuela eta ea zergatik hemen ez ginen elkartzen, galdegiten genion geure buruei. Horrela, bilerak egin eta duela 15 hilabete batzarrearako deialdia egin genuen. Batzarrean Al-Andalus egitea erabaki zen.

— Elkar ikusteko helburua nolabait gaintu da, ez?

— Bai, noski. Nolabait Andaluziako uda hona ekarri nahi dugu. Helburu nagusia, andaluziar eta euskal kultu-

raren artean zubia eraikitzea litzateke, bata besteari ezagutzera ematea. Zentzu horretan Montilla-Arrasate anaitu nahi ditugu eta Udalari ere planteiatu diogu. Uztailan Montillako jaietara joango gara, Al-Andalusek talde moduan parte hartuko du eta Lore-Gazteak gurekin etortzea gustatuko litzaiguke.

Bestalde, andaluziar kultura kaleratzeko ahaleginak egiten ari gara. Ez dugu nahi areto batean sartu eta geure kultura geure lepoari erakustea. Jendeak gure kultura ezagutzea nahi dugu, gauzak, ezagutzen diren neurrian maitatzen direlako.

— Andaluziarra izateko Andaluzian jaio behar da?

— Berezkoa dela uste dut, andaluziarrek iratxoa deitzen dioguna. Esaterako, ez dakit nire alabari zergatik gustatzen zaion horrenbeste andaluziar folklorea eta nire semeari bat ere ez, biak giro berean hazi eta hezitzen ari badira.

Nire kasuan, esango nuke Andaluzia maitatzen orain ikasten ari naizela. Al-Andaluseko lehendakaria naiz, eta lehendakari moduan Andaluzia ezagutzeko ahaleginak egiteaz gain, bazkideei ere ezagutarazi egin behar diet. Baita hemen jaio direnei, euren ahaideen lurra ezagut dezaten.

— Eta zeure herria ezagutzeko ahaleginean, zer aurkitu duzu miresgarrien?

— Dударik gabe, jendearen zabalatasuna. Niretzat Andaluziako gauzarik ederrrena goizaldera arte, etxe aurretan jendeak izaten dituen tertuliak dira. Andaluziarra pertsona soziazat daukat.

— Eta Euskal Herrian?

— Euskaldunarengan, bere jaioterriari dion maitasuna miresten dut.

== 66 ==

Andaluziako uda hona ekartzea
litzateke gure helburua

Asteartean Erreala Atxabalpen


Otsailean entrenatzen egon zen moduan, datorren asteartean Errealak partidua jokatuko du Atxabalpen, lehen mailako jokalariz osatutako konbinatu baten kontra. Partidua Mondra futbol taldearen 25. urteurrena ospatzeko jarri bada ere, maiatzaren hasieran hildako Cesareo Gabaraini omenaldia eskaintzeko balioko du. Partiduari arratsaldeko 6.30etan emango zaio hasiera. Ez da, ez, ikuskizun makala izango!



“Mendia berez garbia”

Deba Garaiko Mendizale Taldeak, Gipuzkoako Mendi Federakuntzak antolatutako “Mendia berez garbia” kanpainan parte hartzen ari dira. Horrela, joan den asteburuan Besaide, Murrukixo eta Orixol mendizale taldeek Degurixa eta Alabitta garbitu zituzten.

Aurten arte, mendiak garbitzeko kanpainak talde bakoitzak bere kontura eraman izan ditu, baina aurrez jarritako lemapean aurten mendiaren garbitasunarekin zer ikusia daukaten ekintza guztiak ekainean burutuko dituzte. Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaletako taldeek egin duten moduan, probintziako beste 31 taldek ere hartzen dute parte kanpaina horretan.



Deba Arroa txapelketan pilotariak ondo

Arrasateko pilotariak, Antzuolako taldearen aurkako neurketa jokatu zuten joan den asteartean, Deba Arroako Txapelketan. Alebinetan 18 eta 6 nagusitu ziren arrasatearrak, gaztetan 22 eta 14, eta nagusietan 22 eta 6. Porrot bakarra haurretan, antzuolarrak 18 eta 1eko emaitzaz nagusitu bait ziren. Orain artean ateratako emaitzen arabera, Arrasateko hiru taldek Deba Arroa txapelketako erdi-finalak jokatzeke aukera handiak dauzkate. Hurrengo ihardunaldia, ostiralean arratsaldeko 7etan, Bergararan.

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

BRANKA jatetxea

Eguneko menua eta karta


ASIER

Fdez de

ARROIABE

Jaurtiketa munduan

PODIUMA



Asier Fernandez de Arroiabek 25 urte dauzka, eta hamazortzi urte zituenetik atletismoaren munduan sartuta dabil. Arrasateko Atletiko Taldeak orain bi aste kategoriaz igotzeko txapelketetan parte hartu zuen. Asier taldearen baitan zegoen eta pisu jaurtiketako frogan parte hartzeaz gain, irabaztea ere lortu zuen. *"Beno, ni normalean diskoa jaurtitzen ibiltzen naiz, baina mailaz igotzea komeni zitzaigula eta, pisua jaurtitzeko esan zidaten, beste inor ez zegoelako frogara horretan parte hartzeko moduan. Ez nuen denbora larregirik izan behar bezala entrenatzeko, baina hala ere irabazi egin nuen eta gainera Arrasateko rekorda gainditu. 12 metro eta 41 zentimetroko jaurtiketa egin nuen, eta uste dut behar bezala entrenatuz gero, askoz gehiago ere jaurti dezakedala"*.

Entrenamendua omen da arrakastaren giltza, bai atletismoan eta baita bizitzako beste hainbat arlotan. Asierrek badauka horren berri, eta horregatik garrantzi handia ematen dio behar bezala entrenatzeari, denbora eta baldintza onenetan noski.

Jaurtiketan indarrak balio handia badu ere, teknika lantzeari ematen dio Asierrek garrantzi handiagoa. *"Ondo jaurtitzea oso zaila da, baina teknika menderatuz gero jaurtiketa luzeak egitea posible da, indar eskasa izanda ere. Argi dago onena indar handia eta teknika ona izatea dela, bata bestearekin batera joan behar dira"*.

Arrasatear gazte hau, eguneroko entrenamenduetan ari da teknika lantzen. Hala ere, baldintza onei buruz hitz egiten du Asierrek eta badirudi gaur egun, Arrasateko azpiegiturak ez diola mesederik egiten atletismoari. *"Mojategiko pistak egiten dituztenean gauzak hobetuko dira. Dena dela, epe motzera orain bezalatsu segitu behar dugu entrenatzen, hau da, kanpora ateratzen, hemen tokirik ez dagoelako. Astero-astero Ordizia, Tolosa eta Anoetako pistak ezagutzeko aukera izaten dugu"*.

◆ Txirrindulariek denetarik

Lasterketarik irabazi barik, baina paper ona eginda joan zitzaizen asteburua Arrasateko txirrindulariei. Bigarren mailako kadeteek Aretxabaletan burututako 60 kilometroko lasterketan, ez zuten apartekorik egin, eta hoberena Angel Sanchez izan zen, 6.a. Lehen mailako kadeteen taldeak berriz, Beasainen erlojuaren aurkako taldeen arteko Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuen, podiumeko 3. kajoira igoz. Azkenik, gazteek Egiako lasterketa luzean hartu zuten parte, 113 kilometro. Iñigo Roldanek hirugarren postua lortu zuen.

◆ Rugby tornea

Arrasate Rugby Taldeak, hilaren 22rako rugby lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honekin, Jon Juaristi eta Jose Antonio Markina, hildako jokalariei, omenaldia eskaini nahi zaie. Arrasateko taldeaz gain, Frantziako Cognac, Baionako Hor Konpon eta Euskadiko Selektzioa Atxabalpera hurbilduko dira hilaren 22an. Arrasateko taldeak Cognac-ekoarekin jokatu du arratsaldeko 4etan, beste bien partidua berriz, 5etan hasiko da.

Aipagarria da arrasatearrek, Cognac-eko taldearen aurka behin jokatu dutela, 40-36 galduz. Euskadiko selektzioan zein taldeetako jokalarik jokatu duten oraindik ez da ezagutzen, baina badirudi Getxo, Bera Bera, Eibar eta Ordizia taldeetako jokalariek bertan izango direla. Printzipioz, Baionako Hor Konpon taldea, bilduko direnen artean indartsuena izango litzateke.

◆ Besaideren irteera

Besaide Mendizale Elkartekoek igandean Amezketan, Belardi eta Uztegi arteko ibilaldia antolatu dute. Irteera goizeko 7etan izango da, Garibaitik.



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzezino kalea 4, behe Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Ruper Madalensoron

Oiartzungo Madalensoro pilotalekua nabarmendu egin da azken urteotan euskal kantarien kontzertuak antolatzen. Bertan agertu diren kantariak bereziki saiatu izan dira emanaldi biribilak eskaintzen. Duela hiru bat aste Ruper gonbidatu zuten, euskal kantaria denez. Baina gau hartan, ohi ez bezala, rokanrola entzun genuen Madalensoron, rock indartsu eta ederra.

ETBk kontzertua grabatzeko egin zuen despliegaak sarrera bertatik sentierazten zuen gau aparta baten aurrean egon gintezkeela. Eta nahikoa izan zen Ruper eta Mugalaris azaldu eta "Urtaroa"ren lehen akordeak jotzea sarre-rako sentipena erabat berresteko. Soinua perfektua zen, akatsik gabea, argiztapena ere egokia. Taldea -mugako basko/erdaldunez osatua-

bikaina, urteetako elkarlanak ematen duen mardultasunaz. Eta Ruper bera ere gogo handiz ikusi nuen, ohizkoa duen hieratistotik aldendu eta ia desmelenatuta.

Guzti horren aurrean, entzuleoi ere sekulako martxa sartu zitzaigun eta jarrera oso aktiboa izan genuen kontzertuan zehar. Ruperrek bere azken disko arrakastatsua osorik errepasatu zuen, kantu zaharragoak ere tartekatuz. Hori bai, zaharrak nahiz be-

rriak gaur darabilen sonoritate rockeroan jo zituen. Adibidez, ia ezezagunak egin zitzaizkigun bigarren disko "Galderak mugaz bestalde..." edota "Bye bye gizontxo", eta hirugarreneko "Ez zait atsegina". Berriei dagokienez, nahikoa da diskoan bezain ondo jo zituztela esatea. Hala ere, propinako kantuen artean egin zuten "Ez da posible"ren bertsio elektrikoa sorpresa galanta izan zen. Kontzertu oso ona be-

raz, bikaina. Ruperrek bizi duen momentu onaren seinale. Kantu ederrak egiteko betidanik izan duen sormenari orain musika-molde ulerterrazagoak eta zuzenagoak erantsi dizkio. Kantatzeko postura ere aldatu egin duela esango nuke, lehen baino ahalegin handiagoa egiten duela entzulearengana iristeko, entzulearekin konektatzeko.

Osagarri horiekin, edozein helburu lortzeko moduan ikusten dut Ruper. Madalensoron behintzat erabat konbentzitu gintuen.

Mikel Irizar


Antzerkia

*Xabier Martík eta
Chistian Atanasiuk*

BOXTROT

aurkezken dute.

- **Ekainak 8, larunbata**
- **Gaueko 10.30etan**
- **Amaia antzokian**



Batuta

Enrique Carroquino

Gasteizeko Carrion musika-denda, Cosme Carrionek 1880. urtean ireki zuen. Geroztik, denda, belau-naldiz-belaunaldi, familiako emakumeen esku gelditu izan da. 1958. urtean Enrique Carroquinok, Carrion familiako alaba batekin ezkondua zegoenak, hartu zuen dendaren ardurara. Orain jubilatuta dago eta dendaren ardurara bere alabaren esku badago ere, askotan egoten da han.

Enrique ez da musikoa, ezta arrasatearra ere, orrialde honetara ekartzeko arrazoia hainbat arrasatearrekin izan dituen harremanak izan dira. *"Mondragoetar askorekin ibili naiz tratuetan, eta bakar batek ere ordaintzeko orduan ez dit inoiz hutsik egin. Beranduago ala lehenago, guztiak ordaindu didate. Arrasate Musikalekin hasiera-hasieratik izan naiz harremanetan, baita bertako irakasle ugariarekin, eta 60ko hamarkadan Arrasaten sortu ziren talde gehienekin"*.

Hirurogeiko hamarkadako gazteak ezagutu zituen moduan ezagutzen ditu gaur egunekoak, belaunaldi bietakoak, Carrionera musika-tresnak baldintza



onenetan erostekotan hurbiltzen dira eta. Alde horretatik, Enrique gaur eguneko eta 60ko hamarkadako gazteei buruzko eritzia emateko moduan dago. *"Beharbada orduko gazteak abentura-zaleagoak ziren. Gaur egun musika-tresna bat erostera datorren gaztea, normalean segurtasunez dator. Lehen berriz, goazen talde bat egitera esan eta egiten zuten"*.

Gazteekin dabilenari gaztetasuna itsasten omen zaio. Zentzu horretan, Enrique Carrion baino gazteagoak gutxi izango dira, Hertzainak eta Korroskada taldeak gustatzen zaizkiola aitortzen bait du. Gaztetasunak ematen duen inprobisazioaz baliaturik eta Arrasatera hurbiltzeko aukera aprobetxatu nahian, *"hil honetan Arrasate Presseko ale batekin datorrenari, deskontu berezia egingo diogu"* esanez agurtzen da Enrique, 67 urteko gaztea.

Arrasatear bakar batek ere ordaintzerakoan ez dit hutsik egin

Txio txioak

Albina Madinabeitiari omenaldia

Jakina denez, igandean eguerdiko hamabi t'erdietatik aurrera Albina Madinabeitia bibolin-jole famatuaren omenez, Amaia antzokian kontzertua burutuko da. Kontzertuan, Arrasate Musikaleko ikasleen orkestra sinfonikoak, eskolako irakasleek, eta lehen eskolako ikasle izandakoek hartuko dute parte.

Chueca eta Valverderen "La gran via" izeneko zartzuelak irekiko du kontzertua. Ondoren, Guridiren "El caserío" laneko zatia entzun ahal izango da. Beatriz Arzamendi arrasatearraren "Mendiko ahotsak" lanaren estreinaldiarekin egingo du aurrera kontzertuak. "Mundu berria", Antonin Dvortzaken lana kontzertuko azkenaurrekoa izango da, eta kasu honetan Arrasate Musikaleko orkestra Beatriz Arzamendik zuzenduko du. Azkenik, kontzertuari bukaera emateko, Arrasate Musikaleko ereserkia entzuteko aukera izango da.

Amaiako kontzertua bukatu eta gero, bazkaria burutuko da.



MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak
Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

FANCY
GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24 ARRASATE

Herri biblioteka behar dugu!

Alfabetizazioa eta herritarren kultura indartzeko toki egokiren bat baldin badago, hori Udal Biblioteka da. Tamalez, Biblioteka-mailan izugarrizko tradizio-falta daukagu herri honetan. Baina, zer da Herri-Biblioteka?

Amets egiteko badugu oinarririk, utopikoak izateko badugu itxaropenik!

Biblioteka, belaunaldi guztientzako (haur, gazte eta helduentzako) espazioa da: espazio librea, aberatsa, komunikazioa posibilitatzen duena.

Biblioteka, norberaren galderei erantzun bila joan gaitezkeen tokia da.



Biblioteka, informazioa jasotzeko ahalmena ematen duen zerbitzua da.

Biblioteka, ipuinak, literatura, poemak gozatzea posibilitatzen duen espazioa da.

Biblioteka, etxeko-lanak, ikerketak, behar den isiltasuna aurkitzen den lekua da.

Biblioteka, neure gogoko

idazle, ilustratzaile, pertsonaia, bidaia, pasadisu... aurkitzeko ahalmena da.

Biblioteka, lagunekin astronomiaz, edo poesiaz, edo musikaz... mintzatzeko foroa da.

Biblioteka, azkenengo nobela etxera eramateko eskaintza da.

Bibliotekak bide berriak irekitzen dizkit...

Arrasaten, Bibliotekan pausu garrantzitsuak eman dira eta baita lehenengo oinarriak jarri ere; baina irakurleei erantzun duina emateko (bazkideak ugariak dira eta eguneroko "bezeroak" asko -giroa ikusteko joan zaitezte buelta bat ematera arratsaldeko 6etan!!!) gure kultura aberasteko eta behar dugun Biblioteka eraikitzeko Udalak politika ausarta eta argia egin behar du.

Maiatzaren bukaeran sortuko den ekipo berriari luzatzen diogu gure deia!!

Klarion Taldea

Lehen

EUSKAL HIZTEGI ENZIKLOPEDIKOA

Lur Argitaletxea

ESKAINNTZA BEREZIA

- Enziklopedia kaleratzean 96.000 PTA balioko du.
- Orain suskripzioa egiten baduzu, abantaila izugarria izango duzu. 70.000 PTA gatik BAKARRIK eskuratu dezakezu.

ETA GAINERA...

- Hasieran, 6.500 PTA bakarrik ordainduz.
- Enziklopedia eskuratzekoan 12 hilabetetan erraztasun osoz ordain dezakezu.
- Opari bat ere, izango duzu:
 - Euskal esmoldeak 1 (K. Izagirrerena)
 - Euskal esamoldeak 2 (R. Etxazarretarena).
 - Walki-Talkie bat.

ZURETZAT ABAILTAILAK:

- 26.000 PTA gutxiago ordaintzea.
- Opari bat jasotzea
- ordaintzeko erraztasuna izatea

Informazioa: Lurdes Berasategi, JL Iñarra pasealekua, 30. Tfnoa. 79 20 19

Konpromezu barik, EUSKAL HIZTEGI ENZIKLOPEDIKOAri buruzko informazioa jaso nahi dut

Izen-deiturak

Helbidea

Herria Tfnoa:

BAKARRA EUSKARAZ

AZKAR IBILI EZ
UTZI GERORAKO





Argazkia: Mikel

E

txe berriak egiteko etxe zaharra bota behar. Hilabete luzeetan egin zutena, hondeatzeko makina pare bat eguntan suntsitu zuen. *Usetxe-barriko* horma eta teilatuaren suntsipenarekin batera makina bat istoriotxo lurperatu zituzten: azterketa bezperan

goizaldera arte gelditu den ikaslearen ahalegina, gauerdian umea negarrez dagoela eta jaikitzeo nagikeriarik ez duen amaren balorea, goizean goiz aurpegi ilunez lanera joan eta arratsaldean irrifartu datorren gizonaren izerdia, parranda egin eta eguerdi al-

dera berpizten den erdi-gazte edo erdi-mamuauren aurpegia, ilusioz beterik errege bezperan oheratzen diren umeen urduritasuna... Azkenean, etxe zaharren suntsipena, gizakion eguneroko gauza arrunten historia lurperatzea litzateke.



**ARANBURU
COTEMAR**

Garraio agentzia



Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errabala
Tfnoa: 79 14 23



H A U R T X O A

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:


- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berrezlera)
- * Logopedia
- * Laguntza terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

Kurtzetatik abiatuta

Domeka edo larunbat goizeko plana oraindik ere erabakitzeke badaukazu, hona hemen, hainbatentzat, paraje ezkutu bat ezagutzeko aukera.

Kurtzetako gaina autoz hartuta gero, San Adrineran doan bidea hartu baino lehen eskumatara, beherantz doan pista bati jarraitu ahal izango diogu. Pistak zati batean beherantza egingo du, arrorantz, berdin dio, segi! Modu hortara Kurtzeta azpiko Marin buruan egongo gara, Gatzikarro, Arrupe eta Aotziba baserriak dauden esparruan. Interesgarriak dira oso, baserri hauek duten bakartasuna eta bakeagatik. Behe-



Gatzikarro baserria etxe kantaletik aterata. Ez du, ez, nol nahiko parajeak inguratzen

rantz segituz eta Marineko kanpaosantua eskumeatara utziz, auzora helduko gara. Behin auzoan gaudela, trenbideari heldu beharko diogu Gatzagaineraino eramane gaitzan. Trenbidea da goenik eta bidexkarik polite-

na da, erripa handirik ez delako eta bailararantz eskaintzen duen bista apartekoa delako. Horrez gain, trenbide hau pinudi, zelai eta baserri artetik zehar pasatzen da. Argi ibili behar da, berriz, trenbideko tuneletan bat be-

netan ere luzea delako eta linterna baten laguntza eskertzen delako.

Behin Gatzagaineraino heldutakoan Jarindora igo behar da, baina orainez gero gorputza zerbaiteren beharrez izango dugunez, hobe da aho betekada bat egitea eta ondoren jarraitu bideari. Esan beharra dago eguzki indartsuko domeka goizetan jende asko mogitzen dela Jarindoko gainetan.

Hortik aurrerakoa samurra da oso, jaitsi Albinaraino eta parean izango dugun Kurtzetako malda igo beharra dago, autora heldu baino lehen. Dena den, argi bide baszterrokin, zizaren bat edo beste topatu den zarata bada-bil eta.

BERRI-BERRIAK



Escort



Orion



MUGARRI



UDAL EUSKALTEGIAK

Udako ikastaro trinkoa

aurkezten du.

- Egunean 5 eskola ordu
- 5.000 PTA matrikula
- Bekak
- Uztailaren 1ean hasteko

Informazio gehiago:


- 79 70 77 tfnoan.
Goizez (9-12)
Arratsaldez (14.00-19.00)

Matrikula
epea
zabalik

**Arimazuri 2,
(Eskola Politeknikoaren ondoan)**

Aste gazte

"Estatu espainoleko sindikatu baten txostenaren arabera, praktikan kontrataturiko gazteen %40ak lan-istripuren bat izaten du".



Kanpamenduak

• Belagua eta Pagoetako kanpamenduetarako plaza batzuk badaude oraindik. Ekintzak: Belaguan mountain bike, hipika, etab. eta Pagoetan ingurugiroa eta naturarekin loturiko ekintzak.

Bekak

• Ekonomia, Informatika eta Matematika-Zientzien arloetan ikasketak atzerrian sakontzeko bekak. Lizentziatuei zuzenduak. Dirulaguntzak: 15.500 ezkongabeentzat eta 17.000 ezkonduentzat, bidaia eta matrikula. Epea: ekainak 17.

• Ekonomia eta historiari buruzko doktorego-tesiak burutzeko bekak. Lizentziatuei zuzenduak. Dirulaguntza: 1.100.000 PTA. Epea: ekainak 17.

• Piano, bibolina eta txelajoleentzako "Sofia Puche" bekak. Eskatzaileak: 10. ikasturtea gaindituta duten 28

urtetik beherako musikoak. Iraupena: 12 hilabete. Epea: ekainak 30.

Udako Unibertsitateak

• Udako Euskal Unibertsitatea: uztailaren 15etik 27ra bitartean, Iruñean. Saiak: Artea eta Komunikazioa, Giza eta Gizarte-Zientziak, Hizkuntzalaritza, Natur-Zientziak, Zientzia eta Teknika. Prezioak: astebeteko ikastaroak 6.000, bi asteak 12.000. Alojamentu aukera dago. Bekak ere lor daitezke. Matrikula epea: ekainaren 28ra arte.

Lehiaketak

• Euskal Herriko euskara eta gaztelerazko literatur sariak. a) Euskaraz: "Jon Mirande" nobela (1.000.000 PTA. saritan), "Lizardi" poesia (600.000), "Pedro I. Barrutia" antzerkia (600.000), "Pedro Axular" saiakera (800.000). b) Gaz-

teleraz: "Pio Baroja" nobela (1.000.000), "Alonso de Ercilla" poesia (600.000), "Francisco de Avellaneda" antzerkia (600.000) eta "Miguel de Unamuno" saiakera (800.000). Epea: ekainak 30.

• "Euskadi" Euskal Literatura eta Liburuen sariak. Modalitateak eta sariak: a) Euskarazko literatura, 1.200.000 PTA. b) Gaztelerazko literatura, 1.200.000. c) Haur eta gazte literatura, 600.000. d) Itzulpena, 800.000. e) Irudigintza, 600.000. f) Argitalpen hobereena, 600.000. Epea: ekainak 30.

Unibertsitate-autobusak

• 91/92 ikasturtean Donostia eta Bilboko Unibertsitateetara egunero autobusez joan-etortzeko interesa dutenek izena eman dezakete Gazteentzako Informazio Bulegoan. Lehenbailehen.

Lan-ihardunaldiak

• 22-26 urte bitartekoentzako plazak daude Euskadin: Trapagan, Busturian eta Tolosan. Modalitatea: arkeologia. Denak dira uztailaren 1. edo 2. astean. Prezioa: 6.000 PTA.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribari etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

TEKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENZA

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

ETXEBIZITZAK

- **Etxebizitza salgai Obenerrekan.** Guztiz berriztua. Egongela, bainugela, sukaldea eta logela bai jantziak. Beste bi logela. Trastelekua. 78m². Bakarkako berogailua. Ganbara. Deitu inongorik gabe 79 98 83 tfnora. Gaueko 8etatik 10ak bitartean.
- **Urbe auzoan etxebizitza salgai.** 107 m², garajea, trastero eta ganbara. Dei egin gauean 79 34 23 tfnora. edo denda orduetan 79 98 94 tfnora.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** (Garajea aukeran). 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua. Bista ederrak. Gas naturala. Tfnoa: 79 93 42.
- **Naturazaleok: hondartza ondoan dagoen apartamentu-estudioa alokatzen dut.** Paraje naturala. Guztiz ekipatua. Vera-n (Almeria) Harremanetarako jo 94- 467 47 07 tfnora.
- **Baserria alokatu edo erosiko genuke Deba Garaian.** Deitu 79 75 96 tfnora. Jon.
- **Peñiscolan sei pertsonarentzako bungalow-a alokatzen da uda osoan.** Dei egin 27 01 37 tfnora. Itziar.
- **Lokala alokatzen da Urbe auzoan, 35m² eta erabiltzeko prest.** Informazioa: 79 84 37 tfnoan. Dei egin astegunetan goizez, 9etatik 12ak arte.
- **Aretxabaleta edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke.** Dei egin 79 10 60 tfnora.

LANA

- **Cobol-eko klase partikularrak hartuko nituzke.** Dei egin 15.30etatik 17.30etara. Tfnoa: 77 08 15. Mikel.
- **Tailer batean lan egingo nuke mekanika apendiz bezala.** Tfnoa: 79 96 10.

- **Ileapaindegi batean egingo nuke lan.** Ikasketak bukatu ditut. Tfnoa: 79 56 36.
- **Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke.** Dei egin 79 13 26 tfnora. Maite.
- **Euskara eta ingeleseko klase partikularrak ematen ditut.** Tfnoa: 79 21 56.
- **Edozein lan egiteko prest nago,** nahiz eta hispaniar filologian lizentziaturatzen. Yolanda. Tfnoa: 79 76 90.
- **Fisikarako eta kimikarako maixua behar da.** (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- **Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko litzuzke.** Tfnoa: 79 99 17. M^a Jesus.
- **Fisikarako eta kimikarako maisua behar da** (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- **Neska prest lanak egiteko.** Dei egin 79 49 05 tfnora.

SALEROSKETAK

- **Bederatzi hilabeteko txakurra salgai.** Informazio gehiagorako dei egin 79 82 91 (Tomas) edo 79 49 49 (Iban) telefonoetara.
- **Egoera onean dagoen bateria merkea erosiko nuke.** Dei egin 8etatik aurrera 79 52 31 tfnora Iban.
- **Aulki anatomikoak saltzen dira prezio onean.** Informazio gehiago 79 06 66 tfnoan. Goizeko 10etatik 13.30ak arte.
- **Kirola egin nahi dut, baina etxeko bizikletarik ez,** akaso zeuk izango duzu saltzeko. Neuk erosiko dizut. Tfnoa: 79 50 53. Josepa.
- **Vespa 200 motorra salgai.** Intermitenteduna, gutxi erabilia eta egoera onean. SS-U matrikulaz. Informazioa: 79 28 12 tfnoan. Javier.

- **Egoera onean dagoen Visa autoa salgai.** Aparteko gauza asko jarrita: lainoaren kontrako argiak, sabaian leihoa, etab. Tfnoa: 79 28 12.
- **R-14 GTL berebela salgai, ITVA pasatua.** Prezioa 125.000 PTA transferentzia barne. Dei egin 8etatik aurrera 79 58 98 tfnoa.
- **Fotokopiagailu bilya berriak salgai.** Informazioa: 79 17 82 tfnoan. (denda-orduetan).
- **Seat Ritmo salgai.** Dei egin 79 73 02 tfnora.
- **Orbea mendiko bizikleta egoera oso onean salgai,** lanta, piñoi eta ardatz berriak. Prezioa 50.000 PTA. Dei egin egunero 22.00etatik aurrera 79 54 65 tfnora. Garikoitz.
- **Neskendako paseorako Peugeot biziketa salgai.** la berria dago. Dei 79 13 49 tfnora. Maria.

DENETARIK

- **Kalealdetik Ferixalekurako bidean estutxe larrosa bat galdu nuen,** barruan ajenda eta josteko gauzak nituelarik. Norbaitek aurkitu badu, dei egin dezala 77 06 51 tfnora.
- **Hitzetik hortzerarikusteko merke edo emateko daukazun telebista hori behar dugu.** X. Letona, A. Errasti, D. Goikolea eta J. Sarasua. Tfnoa: 79 10 93
- **Urrezko eskuturrekoa galdu nuen,** harri urdin eta guzti, maiatzaren 3a eta 4a bitartean. Mesedez, aurkitu baduzu dei egin 79 28 80 tfnora. Eskertu egingo da.
- **Txakurkume politak oparituko dizkiogu ondo zainduko dituenari.** Arraza txikiak dira. Tfnoak: 79 66 45 edo 77 09 40.
- **Argazki makina eramateko poltsa bat aurkitu genuen Udalan.** Berreskuratzeko dei egin 79 52 80 tfnora. goizez (Eduerne) edo 79 52 80 tfnora. arratsaldez. (Miren).
- **Txakur txiki bat galdu dugu.** Marroia da. Aurkitu baduzu dei egin mesedez 79 14 29 tfnora. Ander.



**ARRASATEN
HILDAKOAK**

Felipe Ondarza Alberdi,
maiatzaren 28an. 79 urte.

Margarita Arkauz Murgiondo,
maiatzaren 31n. 69 urte.

M^a Teresa Tellaetxe Arrese,
ekainaren 1ean. 42 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Nemesio Garrido, Udaltzaina



- **Bazkaria prestatzea ala kalea zaintzea?** Bazkaria prestatzea nahiago dut.
- **Autoa gidatzeko emakumeak ala gizonak?** Gizonak, nire ustez emakume gutxi gidatzen dute ondo.
- **San Juanak ala Santamasak?** Santamasak nahiago. Santamasetan giro oso jatorra egoten da.
- **Uniformea ala kaleko erropak?** Kaleko erropak.
- **Okela ala arraina?** Okela nahiago dut, baina arraina ere oso gustora jaten dut, neuk harrapatzen dudanean.
- **Erratza ala aspiradora?** Aspiradora. Etxeko garbiketa ez da nire hobby-a.
- **Txikiteatzea ala paseatzea?** Txikiteatzea, kuadrilarekin txikiteatzea gustatzen zait.
- **Erreleboa ala ordutegi normala?** Erreleboa nahiago dut.
- **Hondartza ala mendia?** Hondartza nahiago.
- **Errioxako ardoa ala sagardoa?** Biak gustatzen zaizkit. Bakoitzak bere momentua dauka.
- **Lanerako, uda ala negua?** Berdin zait.
- **Bizitzeko Arrasate ala Oñati?** Ez bata eta ez bestea, nahiago dut kostaldean bizitzea, itsasoa oso gustokoa dut eta.
- **Udaltzain ala mekaniko?** Mekanikoa izatea gustatuko litzaidake.
- **Kaleko erronda ala bulegoko lana?** Nahiago dut kaleko erronda, bulegoko lana oso aspergarria da.
- **Oporrak hotelean ala kanping dendan?** Kanping dendan nahiago.
- **Musika entzun ala dantza egin?** Musika entzutea oso gustatzen zait.
- **Katua ala txakurra?** Kaleko etxean edukitzeko ez zaizkit gustatzen animaliak.
- **Porra ala porroia?** Nahiago dut lagunekin mahaian eseri eta porroitik edan.


Igarkizunak

Gizakiak

1. **Beti lehorrean eta beti bustita. Zer da?**
2. **Bi nini doaz parean ezin elkarri begiratu.**
3. **Ez naiz tronpeta baina ederki jotzen dut, ez naiz eskupeta baina bi kanoi ditut.**
4. **Lepokoaren perlak bezala noan tokira zoazte, egunen batean zahartuta behera erori arte.**
5. **Guztion baratzetan bi iturri garden, pozik ez gauden seinale ur handiak badaude.**
6. **Musuko leihatiletan bi gortina txikitxo, itxitakoan gordetzen atzean bi kanikatxo.**
7. **Sasipean bi argi beherago bi iturri, beheko bordan artzaina eta zenbait ardi. Ezetz igarri!**

Soluzioak:
1 = mihia
2 = begi-niriak
3 = sudurra
4 = hortzak
5 = begiak
6 = betazalak
7 = aurpegia

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE



Viteri eskoletako neskatilak Donostiako kaiari. 1941

Loli Sotillo hogeitapiku urte zituela etorri zen Mondragoera, maistra. Murua-mendiaratzen etxean jarri zen patrona. Gaztea

eta alaia zen. Eskubaloian jolastan zuten ikasleekin eta txangoak antolatzen zituen. Hori ez zegoen oso ondo ikusita gerraosteko giro gogorrean, baina Loliren ikasleei ikaragarri gustatzen zitzairen beren maistra.

Ikasleek jatekorik ez eta, behin baino gehiagotan banatu behar izan zuten Donostiako botikari baten alaba zenak Mendiarratxetik ekarritako ogibitartekoa.


Ia dena enziklopedia baten inguruan ikasten zeneko garaiak ziren. Neskak bi taldetan banatuta: txikiak eta nagusitxoak. Egiten zituzten txango eta eskursioak normalean Bedoñara eta Udalara izaten ziren.

Halako batean Lolik Donostiara joatea proposatu zuten. Donostiara!!! Zoramena. Esan eta egin. Ogibitarte-

koak prestatu, trena hartu eta Donostiara. Gora eta behera ibili ziren eta baita argazkiak atera ere. Hemengoan, zutik ezkerretik hasita, **Rosario Ugalde, Arantxa Urrejola, Mari Eraña, Guadalupe Agirreurreta, Sole Uranga eta Karmen Elustondo.**

Lehen iladan ezkerretik, **Kontxita Uribe, Pilar Garcia, Loli Sotillo maistra eta Nati Carmona.**

Egun zoragarria Donostian eman zutena. Lolirekin, bestalde, bizi guztirako iraungo zuten adiskidetasuna egin zuten. (Ikus *Txutxumutxuak*).



HI-FI CARS SYSTEMS

**AUTORAKO
ELEKTRIZITATEA**

- Autorako soinua
- Alarmak
- Ekipamendua

Legarre Pabilioia, etxebehea,
Tfnoa: 77 02 36 ARRASATE




KILI-KOLO
Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

ASUNCION IKASTETXEA

A	B	D	E	G	H	I	J	K	L	M	O	P	R	S	T	U	Z
1	0	2	□	+	@	○	i	o	6	-	*	•	?	o	Δ	☆	

JARRI HITZAK ZEINU HAUEN ORDEE.

□☆ 1- 10Δ1□ 6*1 □Δ1 @1?Δ@
 10Δ□?* ☆@?□ 1??10Δ□ .?□00. □☆ ☆1?1
 @1 - 00□0Δ□ 10•□?Δ@□/ * □Δ1 +1 -□?1
 ☆@?□ @□?? □* +1@☆1 +□@ 1+*
 11□ -+* 2 Δ@☆@




TXISTERA

Euskara ikasten:
 Ba Txomin! nola esaten da
 puerta euskaraz?
 Atea
 oso ondo! eta puerta?
 Atea.

IGARKIZUNA

Badago animalia bat kankar
 buruan erabiltzen dituen.
 Ba al dakizu zein den?
 ZORRIA



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Libruskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

**Iaz Joseba Urzelai oñatiar idazle gazte-
txoak hizlaurko saria irabazi zuen Foru Dipu-
tazioak urtero antolatu duen Gazteen Litera-
tur Lehiaketan. Hona hemen lanaren zatitxo
bat, honen prosaren dotorezia dastatu ahal
izan dezazuen.**

Badago ohizko bost zentzuez gain, askok eta askok aipatzen duten seigarren zentzu misterioitsu bat. Izkutuan, burmuineko txoko kiribilduetako punturen batean gorderik, noizbehinka agertzen da kanpora, ahulki, bere existentzia ezezaguna aldarrikatu nahian bezala. Baina sen bitxi hori ez da edozein unetan kanporatzen, ziztada bat beharrezkoa da seigarren zentzu hori piztarazteko, nolabaiteko tentsio bat. Urduritasuna da askotan, beharrezko ziztagarria; egonezinak konturatu gabe deitzen dio zentzu bereziari eta orduan nahasten dira pentsamendu, uste eta susmoak ekaitza dirudien burmuin nahaspilatuan. Hori bera da une honetan niri gertatzen ari zaidana.

Bapatean pauso batzuk atzerantzka egin eta izozturik bezala gelditzen naiz, lurrean ahoz behera dagoen gorpuari begira. Itsumustuan, seigarren zentzu horrek lasaitzeko adierazten dit; saiatzen naizen arren, oraindik ez naiz mugitzeko gai, nire burmuinak agortu du dudan indar guztia, era guztietako pentsamenduak iragaten bait dira bertatik.

Segundu batzuen buruan lortu dut pixka bat lasaitzea. Kontu handiarekin makurtu eta gorpua biratzen saiatzen naiz. Bibote fin eta luze bat ikus dezaket aurpegi mehe batean kokaturik. Ile kizkurdun gizon bat da, konorterik gabe, neke itxura dariolarik badirudi jan eta lorik egin gabe igaro dituela azken egunak. Lurretik altxatu eta nire logelara eraman dut; astuna da benetan, giharre sendoak ditu, kirolari gorputza duela esango nuke. Gizon ezezagunaren gorputzeko hezurrek gustora hartzen dute ohe goxoaren biguntasun lasaigarria. Iratzar araztea pentsatu dut; ez, lo utziko dut, ziur aski atsedena beharko bait du. Egia esan beldurra ematen dit, ez bait dakit egoera honek beregan zer jarrera sortuko duen.

*“Agur, Alexander”
Joseba Urzelai Inza*



LASA-AGUILERA
aholkularitza

- Lan-kontratuak
- Nominak
- Gizarte-aseguruak
- Babes juridiko-soziala
- Elbarritasuna
- Erretiroa
- B.E.Z.a
- Errenta aitopenak
- Dirulaguntza ofizialak
- Aseguru orokorrak

Andra Mari auzunea 3, Tfnoa: 79 29 26 ARETXABALETA

10 ASTELEHENA

- 18.30 Teletestua. Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 19.30 Bapirulauke, umeen saioa, aste honetan Umezaintzan grabatua.
- 20.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.
- 20.20 Erreportaiak. Albina Madinabeitiari egindako omenaldia eta Rocioko erromeria.



- 21.50 Saltsa-maltsan. Jaione Olabek txirlak piperrekin prestatuko ditu.
- 22.00 Berriak. (errepikaldia)

11 ASTEARTEA

- 11.00 Teletestua.
- 12.00 Bapirulauke (bezperakoa)
- 12.30 Berriak (bezperakoa)
- 12.50 Erreportaiak (bezperakoa)
- 14.00 Saltsa-maltsan (bezperakoa)
- 14.10 Berriak (errepikaldia)

12 ASTEAZKENA

- 19.00 Teletestua, era guztietako iragarki eta abisuak
- 20.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.
- 20.20 Zenbat buru, hainbat aburu, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzentzen duen mahaingurua. Gaia: Mondragoeko gaztalak.




21.10 Berriak (errepikaldia)

13 OSTEGUNA

- 11.00 Teletestua (bezperakoa)
- 12.00 Berriak (bezperakoa)
- 12.20 Zenbat buru, hainbat aburu (bezperakoa)
- 13.10 Berriak (errepikaldia)

14 OSTIRALA

- 19.00 Teletestua
- 20.00 Berriak, ATBren informatiboa, Begoña Garaik aurkeztua.
- 20.20 Erretratoa, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Jesus Artzamendi, Euskal Herriko Unibertsitateko Heziketa Zientzien Institutuko zuzendaria.




- 20.50 Musikantoi, Patxi, Pepe, Asier eta Mikelek egiten duten saioa. Berriak (errepikaldia)

15 LARUNBATA

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Berriak (bezperakoa)
- 12.20 Erretratoa (bezperakoa)
- 12.50 Musikantoi (bezperakoa)
- 13.30 Berriak (bezperakoa)

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78




Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak



Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE



Telebegi

Joan den asteko maingurua hauteskundeei buruzkoa izan zen eta herriko politikari gehienak bertan zeuden. Programa hasi bezain laster, eta berau girotzeko, hauteskundeen ondorengo mapa politikoz erreportaia emititu zen. Erreportaian, EA alderdia epe luzera desagertu edo EAJn sartuko zela aipatzen zen, beste gauza askoren artean, eta badirudi ikusle bat minduak sentitu zirela. Nire partetik, barkamena eskatzea besterik ez daukat. Dena den, hauteskunde emaitzei buruz egindako erreflexio subjektiboa izan zen hura, erreflexio guztiak bezela. Ez daukat inolako interes partidistarik, baina emaitzetatik zenbait ondorio atera daitezke eta nik horriek atera eta esan nituen, beste batek beste batzuk atera ditzakeen bezela. Gauza da, hura informazioaz gain, analisi politiko partikularra ere bazela eta testuinguru horretan esan zirela esandakoak.

ANDONI URZELAI

Telebistan ere aldaketa garaia da. Orain arte lanean ibili diren hiru laguni agur esateko ordua heldu zaie. **Jabi Arana**, **Iban Ayesa** eta **Jabi Elduaien** joan dira. ATBren partetik eskerrik beroenak egindako lan handiagatik eta zortetik onena.



ATBko talde berria astlehenean osatu zen. Ezkerretik hasita, **Luziano Arregi** elgoibartarra, **Andoni Urzelai** aretxabaletarra, **Jon Andueza** kazetari mondragoetarra eta **Iñigo Astigarraga** elgoibartarra. Andoni beteranoena da, hasieratik bait dago. Jon ere ibilia da ATBn. Sasoi batean bera izan zen Mondrasport saioko aurkezlea. Erabat berriak Iñigo eta Luziano dira, biak Andoaingo Bideo Eskolan ikasiak. Ongi etorriak!

Telebelarri

◆ Kontraesana da Saiolan egotea eta, aldi berean, laguntasunik ez dutelako, hemengo enpresak kanpora irten behar izatea».

Pepelu Uribarrenek *Zenbat buru, hainbat aburu* saioan

◆ Oraingo industri azpiegiturak galdu egin du lehen zuen arintasuna, besteak beste enpresak handiegia egin direlako».

Marian Zabartek *Zenbat buru, hainbat aburu* saioan

◆ Zenbait enpresari ez zaio bakarrik errentabilitate ekonomikoa bilatu behar. Badira beste faktore batzuk kontuan hartu beharrekoak».


Marisa Bouzak *Zenbat buru hainbat aburu* saioan



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Pozik sentitzen zara zauden tokian zaudela ere. Zure eginbeharra ederki betetzen duzu eta horren ondorio da. Ondo landutako barne bakea duzu. Jarraitu horrela umore ona bezalakorik ez bait dago arazorik ez izateko. Jator egongo zara.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Kontraesan ugari sortuko zaizkizu, ekintzak baloratu aurretik, burutuko dituzulako. Zartada bat baino gehiago hartu behar izango duzu hortaz konturatzeko. Buruarin zaude eta ez duzu asko behar ito eta dena hankaz gora lagatzeko.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Egunerokotasunean emago dituzu datozen egunak, inongo gorabeherarik gabe. Ondo eramango duzu; askotan penagarria izaten da gertaeraren bat itxaron behar izatea aurrera egiteko. Egundoko egonaria eta lasaitasuna izango dituzu.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Ondo eramango dituzu eguneroko harremanak. Goxo egongo zara eta ez zaitu ezerk onetik aterako. Orain duzu zure azukre koxkor hori liluratzeko aukera. Saia zaitz berekin topo egiten. Bizipoza izango duzu eta buruargi ibiliko.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra


Neurritz kanpoko arreta eskaintzen diozu jendeari. Pot eginda amaituko duzu eguna, Virgo, baina pozgarria izango da, zeezer ona egin duzula sentituko duzulako. Ez duzu ez lokartzeko arazorik izango.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Benetako laguna izango zara edonorentzat eta zurekin parrandan ibiltzeko desiratzen egongo dira denak. Ahal duzuna baino gehiago eskatuko dizute eta noraezean murgiltzea suerta liteke. Eutsi mefrez duenari



GEMINI

Malatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Eguzkiak ematen dizun energia etxeoengana bideratuko duzu. Zutaz harro egongo dira eskainiko diezun arreta eta mesedearengatik. Sua darizu eta ez zara dudatan ibiliko. Besteak bere zereginaz arduratzea komeniko litzateke, komodin bihur bait zintezko.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Benetan gustora egongo zara zeure buruarekin, zure jokaera, baloreekin bat etorriko delako. Laguna maiteminduta daukazu eta lelo samarra irudituko zaizu, nolabait beteta sentitzen zarelako. Ez zaitz harropuztu, gero!



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Segiduan aspertu zara hasi berri duzun harreman horrekin, bestearen esanak aginduak bailiran hartzen dituzulako. Abantatu baino berehala moztea komeniko litzazuke, luzagora ondorio onik ezin bait du eman. Lore eder mordoia dago hor zehar.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Zer esan asko izango duzu barruan, baina zure sentimenduak aditzera emateko zailtasunak sortuko zaizkizu. Totel samar egongo zara. Ezer adierazi aurretik bakarrizketa saioaren bat egizu. Maitemindua zaude eta ez duzu beste ardurarik.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Gehiegi arduratzen zara besteekin eta ez duzu horren ordainik ikusten. Eskuzabaltasuna mugatua da, batzuetan dena eman eta beste batzuetan geurekoiak izaten omen gara.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Zailtasunak sortuko zaizkizu lanean. Burua ez duzu oso argi edukiko eta kosta egingo zaizu marthan jartzea. Atsedena hartzea komeniko litzazuke. Gaur lotarako eta eguna beharrerako araua ezarri beharko zenioke zeure buruari.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA




DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta 17, etxabea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE



Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharrian berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.
-
-
-



kutxa

• gipuzkoa
• donostia kutxa
•
• caja gipuzkoa
• san sebastián
•

iKER

**BAINUGELA
LILURAGARRIAK**



BAINUGELA-ERAKUSKETA:
Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE